




ZERAIN

URTEKARIA

2009

Begiratu zientziari beste era batera!

gizarte ekintza

hezkuntza



Etortzen bazara ez duzu alde egin nahi izango.

- 172 esperimentu interaktibo
- Planetarium Digitala **BERRIA**
- Planetarium Txikia
- Exploratoriumeko simulagailuak: Errusiar Mendia eta Tranbia
- Animazio ekintzak eta tailerrak, adin guztietako jendeari zuzenduta
- Bestelako zerbitzuak: aparkalekua, kafetegia, denda, pic-nic gunea, ...

Zientziaren kutxaGunea

Miramongo Parke Tكنولوجikoa - DONOSTIA

T- 943 01 24 78

www.miramon.org



ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA

zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

 **kutxa**


Kaixo irakurle!

Abuztuarekin batera Andramari eta San Roke jaiak heldu dira Zeraina, eta hauekin batera urtekariaren ale berria kaleratu dugu. Eta ia oharkabean, 22. alea egin dugula konturatu gara. 1988an hasitako bidean, zailtasunak zailtasun eta nekeak neke, urtero iritsi da festetarako garaiz urtekaria.

Ez da lan makala Zerain bezalako herri txiki batean, oso-osoki herritarrek egindako urtekaria kaleratzea. Baina horrela, historia, gure historia, gu geu ari gara idazten. Ea beste urte askoz horrelaxe jarraitzeko biderik izaten dugun, jende gehiagoren parte hartzearekin, ahal dela.

Beti bezala, eskerrik asko urtekari hau egiteko beren lantxoa eta lan potoloagoa egin dutenei; eta mila esker baita ere, diruz lagundu dutenei.

Ale hau ere zure gustukoa izango delakoan eskerrik asko zuri ere, irakurle, eta datorren urtera arte.



Artikulua

Orrialdea

Sarrera.....	3
Elkarrizketa.....	6
Ekintzak.....	12
Berrikuntzak.....	18
Aipagarriak.....	20
<i>Polborina</i> galeria.....	23
Meatzeak lotu gintuelako.....	28
Argazki zaharrak.....	29
Bertsoak.....	33
Eskolak 25 urte.....	34
Guraso elkarte.....	36
Su-ermandadea: Urruzti erdikoan sutea.....	38
Don Serapio eta Juan Txiki.....	40
Zeraingo ardi-izenak.....	42
Leonzio Zaragozano euskal musikaria eta Zerain.....	44
Gaztetako ibilerak: Arrantza IV.....	46
Sepulturak Zeraingo elizan.....	48
Gozatu bizitzaz.....	50
Bertsoak eta txistek.....	52
Haurren txokoa.....	53

Egilea: Oa Kultur Elkarte

Lege gordailua: SS - 724-1996

Azala: Joxemari Telleria

Diseinua eta maketazioa: Ion Muñoa

Argazkiak: Udaleko artxiboa, Herri-eskola, Otatza, Larraondo, XaguArtea, Guraso elkarte, Aitziber Makazaga, Xabier Lazkanoiturburu

Laguntzaileak: Aitziber Makazaga, Kontxi Errasti, Alaitz Makazaga, Andoitz Telleria, Mariajexux eta Elena Mendizabal

Inprimategia: Antza Lasarte-Oria

Zerainen, 2009ko abuztuak 13

JON HARREGUY eta MARTINA URBIZTONDO

“Guk kalean ikusi dugu zer dagoen, eta zerbaitek ez gaitu bete, antza”



Mendia, larreak, zuhaitz bakan batzuk eta ganadua. Aralarren gaude, eta ekainak 20 baditu ere, ez du berorik egiten goi hauetan. Beaskinen, Aralargo txabolan, elkartu gara Martina, Jon eta Ortzirekin. Gipuzkoako azkeneko txabola da Beaskin, edota lehenengoa, segun eta nondik begiratzen den. Bost urte daramatza familiak Beaskina etortzen uda partean eta bost bat hilabete inguru igarotzen dituzte hemen. Inguruan ez da beste txabolarik ageri; ez lehen begiratuan behintzat. Jendeketarik ere ez da antzeman; bisitariren bat edota mendizalaren batzuk soilik. Bi hitzetan esanda, natura eta lasaitasuna, horixe da hemen sumatzen dena. Gustuko dute hori Martinak eta Jonek, eta besteak beste, horrexegatik aukeratu dute artzaintza bizibide.

Zuek biok artzaintza aukeratu duzue lanbide. Zergatik? Zein izan da bakoitzaren kasuan aukera hori egiteko arrazoi nagusia?

Martina: Nik ttiki-ttikitatik ezagutu dut bizibide hori, familiako ogibidea zen, eta gustuko dut.

Jon: Niri, hasteko, gustatu egiten zait animalia bera. Animalietan gehiena ardia gustatzen zait. Gero baita ardiak berak duen lotura ere lurrarekin eta naturarekin: gutxi gorabehera urte erdi bat behean pasatzen da, eta gero beste urte erdi bat, hemen, altura hauetan, mendian. Urte guztiko lotura hori ere polita da. Azken batean, urte guztiko zikloa da, ziklo hori nola osatzen den ikustea eta ziklo horretan parte hartzea atsegin dut.

Nolakoa da ziklo hori?

Jon: Arkumeak jaiotzen hasten dira; beno hasi umea hartzen hasi behar dute lehenbizi, eta umea hartzen hemen hasten dira. Hemen bertan mendian umea hartzen hasten dira eta bost hilabete ernai pasa behar ditu ardiak, eta orduan umea egiten hasten da. Orduan ja udazken, negu puntua etortzen da eta ardiak ia beheara eraman behar izaten ditugu. Eta ardiak hasten dira umea egiten behean, eta horretarako baliatzen ditugu bai ikuilua eta bai kanpoko belarrak. Hori altura bajuko belarra izaten da; hemen baino errazago etortzen da behean belarra eta ia baliabide horiek aprobeztatzen hasten gara. Gero arkumeak hazi eta saldu egiten ditugu saltzekoak



direnak. Besteak aurrerako utzi eta gero ia negu guztian ardiak jaizten ditugu. Eguraldi ona bada kanpora atera eta txarra bada barruan uzten ditugu. Gero ia udaberria datorren bezala, ikusten da ardiek mendira etorri nahi dutela; ikusten da beheko belarra ere utzi egin nahian dabilatzala, jan nahi ezta bezala. Hona etortzeko gogoa sumatzen zaie, eta guri hori guztia transmititu egiten digute eta guk hori bizi egiten dugu. Hori gustatzen zaigu. Orduan, ia ardiak mendira etortzeko garaia iristen da. Eta zer esanik ez: ardiak gustura eta gu ere bai, gu ere gustura. Gero hemen beste bolara batez ardiak jaizten ditugu: beste hilabete edo hilabete eta

erdiz. Eta gero ia antzutu egiten ditugu ardiak. Ardiak euren kaxa uzten ditugu hemen mendian eta guk denbora hori baliatzen dugu beheko belarrak ontzeko: moztu eta lehortuta neguan jana izateko. Eta guri horixe gustatzen zaigu.

Artzain gazteak ikustea nahiko arraro egiten da gaur egun. Are arraroago, kaletarra izanez gero, eta horixe da zure kasua.

Jon: Bai arraroagoa edo... Baina gaur egun agian ez hain arraroa. Gaur egun kaleko gazte asko dago baserrira datorrena. Baserriko jendea kalera doa sarri, eta baserrira datozenak kaletik datoz. Aralarren lau artzain gazte daude kaletik datozenak. Guk kalean ikusi dugu zer dagoen eta zerbaitek ez gaitu bete, antza.



**GURE ESKERRIK BEROENA
OA KULTUR ELKARTEAREN
IZENEAN *ZERAIN DEZAGUN*
FUNDAZIOARI**



Mendira etortzen hasi ginen lagunekin, asteburuetan eta beste, gero aste beterako, gero mendian ibilaldi luzeak egiten hasi ginen eta gustura aurkitzen eta... Gero frogatu egin genuen lanbidea beste artzain batekin gustatzen zitzaigun edo ez ikusteko eta pixka bat ikasten hasi ginen artzaintza zer zen.

Artzaintza ikasteko prozesua

zein izan da?

Jon: Ni 20-21 urterekin hasi nintzen. Eta hasieran hemengo baserri batean ibili nintzen, Alegian. Urtebete egin nuen bertan artzain batekin lanean, eta lanbidea gustatu zitzaidan. Eta gero handik Aiako Iturriotz baserrira joan nintzen. Han bi urte egin nituen artalde bat zaintzen. Eta han ia ikusi nuen zer zen

artalde bat nire esku izatea. Gero handik Gomistegira (Arantzazu, Oñati), artzain eskolara, joan nintzen. Han sei hilabete egin nituen: hiru teorikoak eta hiru praktikoak. Hiru praktiko horiek izan ziren 20 ardiko artalde bat erosi eta gure kaxa jartzea. Ia ordurako Martina ere ezagutzen nuen eta hortik ia biok hasi ginen. **Zuk Martina, artzaintza etxetik datorkizula esan duzu. Baina beti horretan ibili al zara? Zure ibilbidea zein izan da?**

Martina: Guk etxean beti izan ditugu ardiak, baina nik sukaldaritzako ikasketak egin nituen, eta gero joan nintzen Usurbila ikastera; beno, lanean aritzera sukaldean. Han urte bat pasa nuen eta handik Aiara joan nintzen: Iturriotz azpira. Iturriotzen azpian aterpetxe bat dago eta hara joan nintzen lanera eta han lanean nenbilela ezagutu ginen Jon eta biok, eta hantxe hasi ginen elkarrekin eta handik ia Jonekin batera ardiekin lanera joan nintzen.

Artzain izateko ikasketa prozesu horretan zein gaitasun hartu behar dira?

Jon: Paperetik asko-asko ez da ikasi behar, baina zertxobait bai:

ANAIK GARAJEA



MEKANIKA ETA IBILGAILU-KONPONKETA

Guardiko Industri-Poligonoa // Tfnoa.: 943 18 74 83 // IDIAZABAL

gaixotasunak sendatzeko oinarriak zein diren adibidez; botika asko ere ez ditugu erabiltzen: 3-5 bat klase. Eta gero pixka bat genetika aldetik ere zertxobait ikasi behar da. Izan ere, gaur egun artzaintza asko ari da aldatzen. Nikolasek berak ere esaten du artzaintzan euskalduna bera izango dela 3-4.000 bat urte ardiekin dabilena eta azkeneko 50 urte hauetan gehiago aldatu dela aurreko guztietan baino. Lehen artzaintza lanbidea baino gehiago zen; etxean ardiak zeuden eta etxerako arkumeak atera eta etxerako gazta egiten zen. Baina gaur artzaintza bizibide nola jarri den, bada ardiei gaur kendu egin behar zaie ahal den guztia. Esne asko kendu behar zaie, eta horretarako genetika aldetik ere ahariekin lan asko egin da. Hori dena ikusi eta ikasten da, zelaien ongarriztatzeak ere bai. Baina, egia esan gelan sartuta asko ez ginen egoten. Ikuiluak ikustera joaten ginen, batean eta bestean nolako gauzak zeuden ikustera. Gaur egun ikuilu bat eginez gero, zer ikuilu mota egin behar den, nola antolatuta, gero gaztagintzan ere ikasi genuen pixka bat. Eta gutxi gorabehera horixe izan zen dena.

Kanpotik begiratuta artzaintzak nahiko lanbide gogorra dirudi. Astebururik ez da, oporrik ere ez. Horren inguruan zer iritzi duzue?

Martina: Hori horrela da, baina inportanteena da gustura egotea. Guk ia badakigu lan hau hartuz gero zer datorkigun, eta azken batean aukera bat da.

Jon: Norberak aukeratzen duen bide bat da. Ez gaitu inork honetara bidali. Mundu honetan bizitzeko lan egin beharra dagoela badakigu.

Martina: Baina hori ez da sorpresa bat.

Jon: Zaudenean baldin bazaude ez da gogorra egiten. Gu hemen gaude, eta hemen gaude, eta ez daukagu beharrik beste inora joateko. Eta ahal baldin badugu honetatik bizi, horrelaxe segiko dugu. Saiatuko gara honetatik



bizitzen, gustatzen zaigulako eta sentitzen dugulako. Asuntia ez dago erraza baina beno.

Krisi hotsak asko entzuten dira bazterretan. Artzaintzari eragin al dio krisiak?

Martina: Momentuan ez dugu sumatu.

Jon: Udarari beti izaten da gazta saltzeko geldialdi moduko bat. Nonbait bero honek jendea ez dio gazta janarazten. Eguraldiak ez du gazta jateko laguntzen. Baina gainontzean ez dugu gehiegi sumatu. Pentsua eta krisiarengatik ez dira igo eta horrek ez digu eragin. Egia da dena den, eragin diezagukeela gazta saltzeko garaian. Jendeak sosa behar du gazta erosteko. Eta hemengo ardi gaztak duen izenak eta propagandak, alegia, kalitatezko produktu bilakatu du, eta horrek esan nahi du saldu behar dela prezio duin batean. Beste gazta batzuk ere gazta dira, izen bera dute: hura gazta da eta hau ere gazta da, eta bata dago 9 euroan eta bestea 15 euroan. Biak izen berean edukita, nik bederatzikoa eramango nuke. Jendea horri begira hasten bada, ba orduan krisiak eragingo liguke. Baina momentuan, gaur arte, ez dugu nabaritu.

Kanpotik begiratuta, artzain bizitzak badirudi gaur egungo bizitza azkar, kontsumista horri nolabaiteko kontrastea egiten

diola. Hori benetan horrela da edo kanpotik ematen duen itxura besterik ez da?

Jon: Ez du zertan hala izan, baina artzain baten erritmoa bestelakoa da. Guk agian zortzi ordu lan egin beharrean 16 egiten ditugu, baina beste erritmo batean: *Orain hau egingo diat eta gero beste hori. Eta orain siesta apur bat egingo diat. Beranduxeago bukatuko badiat ere orain siesta pixkat egingo diat. Orain kafesnea hartuko diat eta gero hasiko nauk.* Guk 16 ordu lan egingo ditugu, baina guk nahi dugun moduan antolatuta eta gure erritmoan. Ez dago enpresan bezalako presiorik.

Martina: Ez daukazu inor gainean esanaz, mugitu hadi, edo lana egin behar dun edo antzekorik.

Inoiz pentsatu al duzue bizimodua beste era batera antolatzea erosoago izango zenik? Inoiz damutu al zarete erabakiaz?

Jon: Hemen sartu izanaz?

Bai.

Jon: Ez, momentuan ez. Gogoz gaude gainera. Lehen esan dizut: gaudenean gaude eta ez dugu momentuan bestelako beharrik. Lehen sukaldean lan egiten genunean bai. Aste Santuan gu sukaldean eta lagunak norabait joaten baziren ba... gu sukaldean eta lagunak hara joan dituk eta ez dakit zer pentsatzen genuen.

Baina orain ez dugu horrelakorik sentitzen eta begira zer nolako Aste Santua pasatzen dugun eta zer nolako Gabonak. Onartzen duzunean, pixka bat lasaitzen zara eta horrek ere eraman errazagoa egiten du lanbide gogor hau. Ez zaizu gogorra iruditzen. Egunak badira, ilea mozteko egunak eta egun seinalatuak, txarrak direnak: azpiak ateratzekoak eta txertoa ematekoak eta horrelakoak dira egun bereziak, laguntza behar duzun egunak eta dena zuk bakarrik egiterik ez duzun egunak.

Orain Aralarren zaudete. Zenbat denbora egiten duzue hemen goran?

Martina: Bost bat hilabete edo. Urriaren 20-25ean, hortxe jaisten gara behera.

Lehen egiten ziren artzain bilerak mendian. Orain egiten jarraitzen al duzue?

Jon: Hemen Santa Barbara egunean egiten da bazkari bat artzainen artekoa. Amezketako Elordi delako artzainaren txabolan egiten da hori. Han biltzen gara guztiok eta orduan egiten dugu bileratxo pasada bat. Lehen behar bada gehiago egingo



ziren, akaso.

Lehen astean behin edo egiten omen zuten bat, Enirio eta Ohi Dui eta Arrastaran eta bilduta.

Jon: Ez dakit. Orain hainbestearainokorik ez dut uste egiten denik.

Kaletik datorren jendea nondik dator? Beterritik? Edo hemen Goierritik? Naparro aldetik edo? Edo nondik?

Jon: Bat Urnietakoa da. Beste bat Ordiziakoa, eta beste bat Zaldibikoa,... Goierrikoak gehiago dira Beterrikoak baino. **Zenbat artzain borda dago**

hemen Aralarren?

Martina: Gipuzkoa aldeko Aralarren 42 borda daude. Guztira 18.000 ardi daude Aralarren

Zer dira gehienak Goierri aldekoak? Edo ez?

Martina: Gehientxuenak Goierri aldekoak dira. Aiatik etortzen zirenek iaz utzi zioten etortzeari. Eta orain borda horietan amezketar bat eta Urnietako bat sartu dira.

Hemen Aralarren administrazioaren aldetik zer botatzen duzue faltan?

TELLERINE BASERRIA



NEKAZALTURISMOA

Jose Migel Arrondo Irastorza

Aizpea Auzoa
Tel. 943 58 20 31
20214 ZERAIN



Jon: Guk bidea. Eniriotik honako bidea. Txabola aldetik, ardiak jaizteko bitarteko aldetik eta larre aldetik ongi gaude. Bidea botatzen dugu faltan. Huskeria litzateke hor bidea egitea. Bizitzeko ere, bost bat hilabete bizitzeko, txabolak onak dira. Txabola hauek mankomunitatearenak dira. Hemendik Enirioa bide bat balego, ni ez nintzateke ibiliko Beundera joateko asmoarekin, orain nabilen bezala. Izan ere, Zeraindik hona etortzeko 64 km-ko bidea daukat, eta bide oso txarra gainera. Hango larreak hemengoen berdinak ez direla badakit, baina nik gaisoiletan gastatzen ditudan diruak pentsutan Beunden emango banizkie... igual ardiak berdin eramango nituzke udazkenean behera eta ni erosoago ibili. Hemen askotan ematen du ganadua mendira bota eta mendian ongi daudela, baina hori ez da horrela. Zenbaiti iruditzen zaio behin gazta egiten bukatzean gu potrojorran gaudela, eta ganaduekin egin beharra dagoena da, joan eta begiratu ea zer moduz dauden: errenak direla, gaur horrelako eguraldia dagoela... belar klase

guztiak ez dira berdinak, euria denean latza jatea komeni da, edo babesa bilatzea, eta eguraldia ona denean beste belar klase bat jatea. Hemen mendian ganadua mugitzea ere oso inportantea da. Horregatik belarretara behera joaten garenean ardiak hemen utzita eta hiru-lau egun pasatzen baditugu, bigarren egunerako gure ardiak nola ote daude galdezka izaten gara: bakarren bat etzanda hankaz gora igoal. Hemendik Enirioa bidea irekitzea baino gauza zailagoak egin dira. Bost artzain gara bide hori ibiliko genukeenak. Hori borondate falta da. Beste aldetik bueltan bidea badagoela eta ez dute ikusten zenbat kilometro egin behar izaten ditugun.

Badakigu gaztak egiten dituzuela, baina horretatik aparte zer etekin ateratzen diozue ardiei?

Martina: Gaztaz aparte, arkumearekin etekin pixka bat, baina arkumearekin ere gutxi.

Jon: Bai, bai. Arkumeakerin ere gutxi. Prezioa altxa gabe dago, esaten dutenez, 25 urtean.

Zuek nahiko urrutikoak zarete. Nolatan erabaki zenuten Goierrira etortzea, eta Goierrin

nolatan Zeraina?

Jon: Guk ez genuen erabaki: Zeraina joan behar dugu artzaintzan aritzera. Gu errentan ginen baserri batean, Zestoako lurretan. Eta Jakoba Errekondo esana genuen, zuloren bat nonbait bilatzen baldin bazuen, ba kasu egiteko, eta Zerainen bilatu zuen. Kasualitatez jakin zuen Inazio berea saltzeko asmotan zegoela. Izan ere, errentan ikusten genuena zera zen: gaur bai hau, baina datorren neguan izango al dugu? Ziurtasunik eza geneukan.

Zerainen, herrian gustura al zaudete?

Martina: Bai oso gustura. Orain ikusten dugu beste nonbait ere bilatu izan bagenu zaila izango zatekeela Zerainen baino gusturago egotea. Izan ere, ondo antolatuta dagoen herri dela ikusten dugu eta bizitza duena.

Zerbait botatzen al duzue faltan?

Martina: Agian familiarengandik urruti egotea. Orain umea ere badaukagunez, ba, zaintzeko eta.

Jon: Dena den, umea zaintzeko jendea bilatzeko ere moldatu gara.

Arantzazu Muñoa

ANDRAMARI JAIK

Eguraldiak guztiz ez lagundu arren, urtero bezala Andramari jaiak giro ederrean ospatu genituen iaz.

Bezperan haurrak, jolasean ibili ziren puzgarrietan salto eta salto. Eta mozorrotzeko aukera ere izan zuten; baita ederki mozorrotu ere! Etxafuero eta kanpai bueltakoekin hasiera eman ondoren txekorra janez eta sagardoa dastatuz jende ugari bildu zen goizalde arte. Gozategi eta DJ Xaibor lagun onak izan ziren gau-giroan.

Andramari egunez urteroko ekintzez gain, goizean, herriko gazteek pilotari dohainak erakutsi zituzten pilotalekuan. Aizkolarien saioa eta 45 urtetik gorako en laugarren dantza txapelketa jokatu zen arratsaldean. Iluntzean, gazteak herrian ibili ziren triki-poteoan. Ondoren, denak Oihartera joan ziren afaltzera, astoa eta karroa lagun hartuta. Eta gauean, ez zen asto karrerarik falta izan.

San Roke egunean, soka-dantza egin zuten herriko agintariak aspaldiko ohitura berreskuratuta. Nahiz eta dantzan munduko onenak ez izan, herritarrek gustura begiratu zieten. Gauean, herri afaria umore ederrean eta giro onarekin egin zen plaza aldean, beti bezala gora begira beldurtuta egon ondoren. Hiru eguneko jaien ondoren, atsedena hartzeko egunak iritsi ziren herria txukundu ostean. Betiko moduan izan zen anekdota eta bilobei kontatzeko moduko istoriorik, baina oro har, festa umore ederrean eta aparteko ezustekorik gabe joan ziren.

PEREGRINAZIOA

Irailaren 6an urteroko erromesaldia egin zen Arantzazura. Goizeko 8etan herriko plazatik irten ziren erromesak. Batzuk bertatik oinez eta beste batzuk Aldaola aldera arte kotxez joanda, Urbiara jo zuten. Han denek elkarrekin bazkaldu eta arratsalderako iritsi ziren Arantzazura. Eguraldiak lagunduta, egun pasa bikaina egin zuten.

KULTUR ASTEA

Irailaren 9tik 17ra egin zen kultur-astea. Eskolaren 25. urteurreneko festa ospatuz hasi zen kultur astea, larunbatean. Hurrengo egunean,



Soka-dantza berreskuratuta, San Roke eguerdian dantzatu zuten herri-agintariak.



Arantzazura koadrila dezentea joan zen erromesaldian.



Azoka egunean idi pareak karreatu zituen muztioa egiteko sagarrak.

jubilatuena eguna izan zen, meza, bazkari eta bertsolariekin.

Asteazken zehar hainbat gai jorratuz hitzaldiak izan ziren. Eta ostiralean, Beasaingo Aurtzaka dantza taldeak

Goierriko Dantzak izeneko ikuskizuna eskaini zuen elizan. Ikuskizuna, kultur aste guztia bezala, betea bezain polita izan zen.

XIV. AZOKA EKOLOGIKOA

Jende ugari bildu zen urte bat gehiagoz ere XIV. azoka ekologikora. Salmenta postuak produktuz beteta egon ziren eta tailerrek jendea gozarazi zuten; batik bat gaztentxoena. Urteroko moduan sagar muztioak jendearen ahoa goxatu zuen. Horrez gain, nobedade nagusia, sagardoaren prozesua izan zen: idi pareak tiratako gurdian sagarrak karreatu ondoren, plazan sagarra matxakan txikitu eta tolaean muztioa ateratzen ikus zitekeen. Argazki ederrak ateratzeko aukera izan zen.

Arratsaldean ez zen azoka-posturik egon, baina herri kirol saio bikaina izan zen. Lehenengo idi-probak egin ziren goiko plazan eta ondoren aizkora saioa izan zen beheko plazan. Egun beteko azoka bikaina izan zen.

BOLA ETA TOKA LEHIAKETA

Abenduaren 8an, Gipuzkoako bola eta toka txapelketa jokatu zen Zerainen. Bertan lehiatu ziren probintziako bolari eta tokalari onenak.

KORUEN KONTZERTUA

Abenduaren 14an, Zeraingo Uharka eta Lazkaoko jubilatuen abesbatzek,



Lazkaoko jubilatuen koroak tartean gabon kantak ere abestu zituen.



Gabon eguneko hotzak ez zuen jendea etxez etxe ibiltzera atzeratu.



ONDARRE

ETXERAKO ETA
SOZIDADERAKO
HARAGI ONENA

Zurbano kalea
20214 SEGURA

Tel: 943 800326



Kopla zaharrak kantatuz arratsalde osoa pasa ostean, indarrak Otatza sagardotegian hartu zituzten Santa Ageda bezperan.

kontzertu bana eman zuten Zeraingo elizan. Eguberri atarian izanik gabon kantak entzuteko aukera izan zen, beste abesti batzuen tartean. Kantaldi polita izan zen.

GABONAK

Gabon egunean zehar herrian gabon kantak abestuz herritar talde bat ibili zen egun osoz herriko etxe guztiak pasatuz. Eskolako haurrak beren irakasle eta gurasoekin goizez ibili ziren herri inguruko etxeetan. Iluntzean, haurren gozamenerako, Olentzero etorri zen menditik behera, gurdian haurrentzat opariak eta denentzat gaztaina erreak ekartzera.



Belen Abendibar eta Maribel Alustiza gailendu ziren tuteko txapelketan.

TUTE ETA MUS TXAPELKETAK

Urtarrilaren 31n, Liztormendi elkarteak tute txapelketa jokatu zen. Bikote guztien artean, herritarrek gailendu ziren: Maribel Alustiza eta Belen Abendibar. Handik 15 egunera, otsailaren 14an, mus txapelketa jokatu zen. Tutekoan baino bikote gehiagok parte hartu zuten eta denen artean, Jabier eta Iker Aizpeolea osaba-ilobak nagusitu ziren.

SANTA AGEDA BEZPERA

Santa honen izenean... aurten ere herritar talde bat bazkalondorenen Barbari auzotik hasita, etxez etxe ibili zen tartean lehengo kopla



Jabier eta Iker Aizpeolea osaba-ilobek jantzi zuten museko txapela.


Inauterian antzerki dotorea egin zuten eskolako haurrek.

Endika Alustizaren memorialeko sarituak.

Kolonbiako irakasleei Zeraingo eskolako lana azaldu zien Kontxi irakasleak.


zaharrak kantatuz. Entzuleek gozatu zuten eta baita eskuzabaltasunez erantzun ere, batzuetan kafea eta pattarra, beste batzuetan mokadutxoa, eta denetan dirua emanda. Oraingoan bildutakoa Perun dagoen misio batera bidali da.

KOLONBIAKO IRAKASLEAK BISITAN
Otsailaren 11n, gure herriko eskola ikusten izan zen Kolonbiako irakasle talde bat. Eusko Jaurlaritzaren bitartez Euskal Herria bisitatzen zebilen irakasle taldeak Zeraingo eskola txikiak nola funtzionatzen duen ikusteko aukera izan zuten.

ITURRIOZ S.A.

Erainkuntza eta eskabazio lanak

Eziolatza poligonoa, 24 B
20213 IDIAZABAL (Gipuzkoa)



Telefonoa: 943 187 556 - Fax: 943 187 356



Galeriaren irekiera herri-giroan egin zen.



San Isidro eguneko herri-bilera jendetsua izan zen.

ESKOLAKO HAURREN INAUTERI JAIA

Eskolako haurrek ezin hobeto ospatu zituzten aurten ere inauteriak. Otsailaren 19an, urtero ohi duten moduan, denak mozorrotu eta antzerki bikaina egin zuten eliz atarian, herritar eta gurasoen aurrean. Ondoren denek elkarrekin meriendatxoak egin eta dantzan eta jolasean jarraitu zuten, inauteriak ospatzen.

ENDIKA ALUSTIZA MEMORIALA

Martxoaren 1en, Endika Alustizar zenaren omenezko XVI. memoriala jokatu zen Liztormendi bolalekuan. Pedro Lazkano izan zen garaile.

POLBORINA GALERIAREN IREKITZEA

Martxoaren 28an, Polborina galeria herritarren artean inaguratu zen. Bertan 100 lagunetiko gora bildu ziren.

SAN ISIDRO EGUNEAN HERRI-BILERA ETA AFARIA

Aurten aspaldiko partez, San Isidro egunean herri afaria egin zen. Aurretik ordea, herritar ugariarekin herri-bileran herriko hainbat gai eta proiektu landu ziren.


AIZKORA APOSTUA

Maiatzaren 16an, aizkora apostua egin zuten Iñaki Ibarguren, Lakiolak, eta Jesus Oiarbide, Paxkualik. Bina oinbiko eta bina kana-erdiko moztu zituzten. Hogeita hiru minutuko lanaren ostean, Lakiola nagusitu



Apostu ikusgarria jokatu zuten.

zitzaion Paxkualiri segundu gutxiren aldearekin.



**GURE ESKERRIK
BEROENA
OA KULTUR
ELKARTEAREN
IZENEAN**

**LIZTORMENDI
ELKARTEARI**

ESKOLAKO AGENDA 21

Aurten ere, Zeraingo herri-eskolak Eskolako Agenda 21-a lantzeko aukera izan du. Nobedade gisan, herritik kanpo ikasten duten haurrek ere aste santuan herriko agenda 21 lantzeko aukera izan dute. Ekainaren 3an, denen artean, landutakoa herriko alkateari azaldu zieten.

SAN JOAN BEZPERA

San Joan bezperako suaren inguruko festa, istorio, tradizio eta erritualek bizirik diraute oraindik ere Zerainen. Horregatik aurten ere, ekainaren 23an astelehena, arratsaldean San Joan arbola, bere ikurrina eta lore sortarekin zutitu zuten plazan. Iluntzeko 8etan haurrek dantzatu, eta Uharkakoek *San Joan* kantatu ondoren, kanpai bueltakoen soinuarekin batera San Joan sua piztu zen. Suaren inguruan dantzatu eta ausarten batzuk salto bat edo beste egin zuten. Aurtengoan, eguraldi onaz gozatuz, artepean mokadutxo bat egiteko aukera izan zen.

MUTILOARA VI. JAITSIERA

Ekainaren 26an, Mutiloako jaien hasieran, zeraindarrak elkarrekin oinez jaitsi ziren festa giroan, musikari ugariz lagundirik Mutiloko sagardo dastaketara.

BAITA ERE

Ekintza hauez guztiez gain, orain arte bezala, joan den urte honetan ere beste hainbat ekintza egin dira:

* Ingelesko kurtsoak

* Aste Santuan eta udako oporraldietan haurrentzat aisialdirako jolasak eta tailerrak egin



Euskal Herriko I. sega ligako lehen jardunaldia ikuskizun polita izan zen.



Suaren bueltan herri oso bildu zen San Joan bezperan.

dira.

* Adinduen urteroko eskurtsioa Azpeitiko trenaren museoa ikustera izan zen, Ondoren Zumaian bazkaldu zuten.

* Azaroan ardi afaria egin zen Ostatur antolatuta.

* Urtarrilean gaztina jatea egin zen Mandio tabernak antolatuta.

* Maiatzean bertso-afaria izan zen Ostatur.

* Kontseiluaren 10. urteurreneko festara joateko autobusa antolatu zen abenduan.



Zagi dantza ere egin zuten herriko gaztetxoek San Joanetan.



Aurten ere jende asko jaitsi zen Mutiloako sagardoa probatzera.

Berrikuntza asko egin dira azken urtean

SANEAMENTUA

Herriko saneamentua edo ur-zikinak bildu eta Legorretako araztegia lotzeko lehenengo fase edo sare nagusia 2007-2008 bitartean egin zen. Sare nagusian, Irukate auzotik hasi eta Segurako maduraraino ur zikinak eramateko hodia sartu zen (hodi hori Zegama aldetik doanarekin elkartzen da). Honekin, lehen Unsulategiko zelai barrenean zegoen putzu-beltza baliogabetua geratu zen. Jada martxan den saneamentuaren bigarren fasean, adar nagusiari hainbat adar lotzen ari dira. Herri gunearen inguruan dauden etxe eta baserrietaraino ari da iristen saneamentua.



(Ostatu atzeko aldapan, batik bat negu partean) izaten diren arazoak kontuan izanda, Kaminopetik hasi eta Doroteaneko baratza barrenetik lehenengo bidera lotzen den bide berri bat ireki da. Fondo estataleko diru

laguntzaz baliatuz lehenengo fasean, 228 m. luzera eta 5m. zabalera dituen bidea ireki da.

Aldi berean Olabide-txikiri etxeraino bidea egin zaio. Bigarren fase batean egokitze lanak egingo dira.

BIDE BERRIA

Kozmendi auzoko bide sarreran



MANDIO
TABERNA

Herriko plaza
20214 ZERAIN
Tel.: 943 80 17 05



JOLAS PARKEA

Jolas parkean lehen zegoen zorua ez zela umeentzako egokiena iritzita, aurtan berritu egin da. Pinu azalaren ordezkortxoa eta egurra jarriko da. Horrela, parke garbiagoa izateaz gain, bertan dabiltzan guztientzat seguruagoa ere izango da.

AIZPEKO SONDEOAK

Bengoetxe baserritik Mantxola bitartean dagoen lur sailetan, azken urteetan arazo asko izan dituzte lur azpiko urekin, luizi eta lur-mugimentuak izaten zirelako. Arazo honi konponbidea jartzeko sondeoak egin dira eta ur pila atera da.



AIZPEKO BIDEA

Olako zubitik Mantxolara doan bidean hobekuntzak egin dira. Bide bazterreko kunetak egin, zubietako petrilak berritu eta zorua enbreatu egin dituzte. Txukundu ederra eman zaio.

ARIZTIBARRENEKO APARKALEKUA

Zeraingo Udalak, Ariztibarren eta Antxaputxu artean dagoen lur sailean (lehenagoko baratzean) aparkalekua jarri du. Erabat bukatu gabe egon

arren dagoeneko aparkatu daiteke. Aparkaleku honekin, plaza aldean auto pilaketa txikiagoa egotea espero da. Dena den, denok gure parte jarri beharko dugu eta aparkatzeko ohitura berriak hartu.

Maria Jexux Mendizabal

JAIOTZAK



Nora Iztueta Etxeberria 2008-7-25



Harriet Apaolaza Kintela 2008-12-14

HERIOTZAK

Andres Imaz Goya	2008-4-16
Euxebi Iztueta Igarzabal	2008-6-23
Josefa Imaz Goiburu	2008-9-1

BIZTANLEAK

2008ko urtean zehar izandako gorabeheren ondoren urte bukaeran 245 biztanle daude udal erroldan. Altak 5 izan dira, hauetatik 2 jaiotza; bajak 6, hauetatik 3 heriotza.

2008-2009 IKASTURTEKO HERRI-ESKOLAKO HAURRAK

Iosu Lazkanoiturburu Alustiza
Aroa Saez de Egilaz Junkera
Irenia Apaolaza Kintela
Haizea Foroni Ruiz de Larrinaga
Adur Balerdi Aierbe
Haitz Iturrioz Sodupe
Aizpea Elortza Elorza
Eki Iturrioz Sodupe
Ortzi Harreguy Urbiztondo
Unai Eguren Retolaza
Uxue Saez de Egilaz Junkera
Eneritz Iztueta Etxeberria

2008-2009 IKASTURTEKO HAURRESKOLAKO HAURRAK

Itxaso Lazkanoiturburu Alustiza (Zerain)
Manex Rivela Tapia (Segura)
Enetz Iturbe Egimendia (Zegama)
Nora Iztueta Etxeberria (Zerain)
Aratz Collado Mendizabal (Zegama)
Aratz Berasategi Jauregi (Segura)
Harriet Apaolaza Quintela (Zerain)



HAUTESKUNDEAK

2009ko martxoaren 1ean Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak izan ziren honako emaitzekin:

Hautatzaileen zenbatekoa: 206
Boto emaileak: 158
EAJ/PNV : 83
D3M(ilegalizatua): 53
Aralar: 16
EA: 3
EB-Berdeak: 1
PP:1
PSE-EE: 1

2009ko ekainaren 7an Europako Parlamenturako hauteskundeak izan ziren honako emaitzekin:

Erroldatutako hautesleak: 209
Boto emaileak: 114
Boto zuriak: 2
Iniziatiba Internazionalista/ Herrien Elkartasuna: 47
EAJ/PNV: 44
Independentistak eta Ezkertiarak: 15
PSOE: 4
EB/B: 1
UCE: 1

EKO-RALLY

Ahalik eta gutxien kutsatzen duten autoen Rallya pasa zen irailaren 20an Zeraindik. Auto hauek

erregai ekologikoa erabiltzen dutenez, beren abiadura motela izaten da, ez dute 60 km/h-ko abiadura gainditzen.



BASAZABALGO GAZTA SARITUA

Basazabalgo Jabier Muñoaren gazta bati, Austrian izan zen Käsiade izeneko txapelketan hirugarren saria eman zioten. Idiazabal izendapena duen ketutako gazta bat izan zen, 291 gazten artean brontzezko saria lortu zuena.



OTATZA SAGARDOTEGIA
ZERAIN GIPUZKOA
TEL. 943 80 17 57

KORRIKA 16 ZERAINEN

AEK-k antolatzen duen Korrika, aurtengoan 16.a garrena, Tuteratik Gasteiza bidean, apirilaren 2an Zeraindik pasa zen. Goizeko 8ak aldera Seguratik etorri zen Korrika, Zerain zeharkatu eta Mutiloako bidea hartu zuen. 3 km. erosi ziren Zerainen, Udala, Kultur Elkarte, Guraso Elkarte, Liztormendi, Herri Eskola eta herriko zerbitzuen artean, ondorioz testigua eramaten sei pertsona desberdin izan ziren. Bezperan Herri Eskolako haurrek herrian zehar Korrika txikia ospatu zuten.



EUDEL

1979ko maiatzaren 19an Udal demokratikoak sortu ziren. Hori dela eta 2009ko maiatzaren 19an Eudelek antolatuta Txillida- Lekun elkartu ziren 30. urteurrena ospatzera, gaur egungo alkateak, garai hartan alkate izandako 87rekin. Denak ezin izan ziren elkartu, baina bildu zirenek egun bikaina pasatzeko aukera izan zuten.

BOLA TXAPELKETA

2009ko maiatzaren 31an, Hernanin jokatu zen Gipuzkoako Bola txapelketan, emakumeetan Aitziber Makazagak irabazi zuen.

GOIAREN ESKULTURA BERRIA

Zeraingo Mantxola baserriko jatorrikoa den, Francisco Goya margolari zaragozarrak, eskultura berria du Zerainen. 2008ko azaroaren 14an, lehen zegoena kendu eta berria jarri zen. Eskultura hau Joxemari Telleriak diseinatu da, 3 m. luze ditu, eta 2.000 kilo pisatzen ditu, corten altzairu delakoaz egin da. Eskulturak goiko aldean G eta Z letrak irakur daitezke, Zerain eta Goiarenak. Aurrealdean, Goiaren jatorria aipatzen duen plaka bat du itsatsita. Lehen toki berean zegoen harrizko bustoa Mantxola baserri ondoan jarrita dago.



Elena Mendizabal



Zeraingo Udala

**GURE ESKERRIK BEROENA
OA KULTUR ELKARTEAREN
IZENEAN
ZERAINGO UDALARI**

Polborina galeria

Zeraingo Aizpea eta Barbariko lurzoruak duen burdina aberastasunak, herriko historian bere eragina izan du, meatze gune garrantzitsu bilakatuz. Inguruak, beharrezko baliabide naturalak eskaintzen zituen meatzetako aktibitate eta lan guztiak egin ahal izateko: basoa, ura, erliebea,... Era berean, mendia eta ingurua ezagutzen zutenak, eta burdina ustiaketari loturiko lana zer zen ondo zekitenak zeuden inguruan. Honetaz guztiaz gain, garrantzitsuena ordea, meatzarien lurzorian burdina eta beruna aurkituko zituztela zen.

Burdinaren Mendian mendeetan zehar izandako ustiaketaren zergatia ulertu nahi badugu ezinbestekoa da "Polborina" bezala ezagutzen den galeria edo barru-bide honen ezaugarriak ulertzea.

Burdinaren Mendi osoa hobi mineral baten barnean sartzen da. Milioika urtetan zehar hobi mineral bat sortzeko, mineral hau gordetzeko balio duen arroka aproposa behar dugu. Euskal Herri osoan hobi mineral guztiak kareharrian agertzen dira. Kareharria itsaso azpian sortu zen oskoldun izaki bizidunei esker (koralak, moluskuak, etab.), hauek hiltzean oskoletako karea itsaso azpiko zoruan pilatuz joatean. Izaki hauek bizi ahal izateko argi ugari behar dute, eta beraz sakonera gutxiko itsasoa. Duela 115 milioi urte Euskal Herri gehiena itsaspean zegoen, baina bazeuden sakonera gutxiko puntu altu batzuk. Hauetako bat hementxe zegoen, geologian "Mutiloako Domoa" bezala ezagutzen dena. Bertan kareharria sortuz joan zen. Domo edo puntu altu hau lurpean oso sakonera handian zegoen magmak gorantz bultzatzen zuelako sortu zen, lurra globo bat bezala puztuz.

Magma hau mineraletan aberatsa zen, eta duela 60 milioi urte inguru pixkanaka gorantz igotzen joan zen, harkaitzak zeuzkan pitzaduretatik batzuetan eta harkaitzarekin nahasiz eta hau tindatuz beste batzuetan. Urtutako mineral hau kareharriarekin nahastu eta tindatzen duenean balio gutxiko minerala sortzen da. Baina harkaitzaren pitzaduretan sartu eta



bertan birkristalizatzen den magmak kontzentrazio handiagoko mineral zainak sortzen ditu, gure kasuan Berun, Barita eta Siderita zainak.

Gainez egin zuen magma honen erdialdea gaur egungo Bengoetxe inguruan zegoen, eta magma kanpora irtendakoan bertan zoruak behera egin zuen, gaur egungo sakana sortuz. Magmak bi aldetara gainez egin zuen, iparraldera Troiko hobi minerala sortuz, eta hegoaldera Aizpeako hobi minerala sortuz.

Denborarekin, Aizpeako aldean, lur azalean dagoen burdina oxidatu egiten da. Aizpeako hobi minerealean burdina azaletik oso gertu dago, eta horregatik hemen ez da inoiz oso kalitate handiko burdinarik aurkitu.

Beti pentsatu izan da Iparraldean bezala hegoaldera ere mineral aberatsagoa egon zitekeela. Gaur egun oraindik ordea ez da aurkitu,

baina posible da mineral hau Barbarin aurkitzea. Auzo honetan oso pista garrantzitsuak aurki daitezke eta Mutiloako meategia itxi ondoren enpresa finlandiar bat ibili zen pista hauek jarraituz zundaketak egiten. Hala ere, zundaketak ez ziren ongi egin eta ezin dugu esan bertan mineralik aurkitzen den edo ez.

Aizpeako mendietara burdina bila etorri ziren lehenengoak ziurrenik bertan agertzen ziren kolore bitxiak erakarrita etorriko ziren. Zerain inguruan azaltzen ziren mineraletatik burdina eta beruna izango ziren hasera batetan ustiatuko ziren bakarrak.

Hasiera batean, erromatarren garaian, intuizio handiarekin lan egiten zuten, eta oso agerian, lurrazalean zeuden hobiak ustiatu zituzten. Hobiak aurkitzeko interpretazio eta asoziazioak



erabiltzen zituzten, adibidez lur mota bakoitzean zein landaretza mota irteten zen aztertuz.

Erdi arotik XX. mendera arte oso teknika gutxiarekin eta zentzu geologikorik gabe lan egin zuten. Sakabanatutako ustiatze gunek aurkitzen dira, bakoitzak lortzen zuen lur zatian burdina aurkitzeko itxaropenarekin irekitako zuloak, baina azterketa seriorik egin gabe.

XX. mendean ingeles eta alemaniarrek Burdinaren mendiaren ustiaketa osorik hartu zuten, eta

ezagutze gehiagorekin hasi ziren galeriak irekitzen.

Mendiaren alde honetan harkaitz geruzak mendi magalaren paralelo antzean daude, eta bertan dauden galeria edo barru-bideak kareharri geruzak zeharkatuz eginda daude, geruza bat eta bestearen arteko zirriztuan egon zitekeen siderita edo burdin zainaren bila. Zain bat ustiatutakoan aurrerago jarraitzen zuten hurrengoaren bila.

Mendiaren bestaldean aldiz geruzak mendi magalaren elkartuz

daude, eta galeriak zuzenean mineral zain bati jarraituz eginda daude.

BARRUAN

Galeriaren hasieran ikusten den materiala kaltzita da. Hau baliorik gabeko materiala zen meatzarientzat, eta gainera gogorra, baina zulatu beharra zeukaten atzean egon zitekeen burdinara iritsi nahi bazuten. Kaltzita hau zulatzeko lehergaiak erabiliko zituzten, batzuetan barrenuarekin zuloak egin eta bertan lehergaia sartuz, edo harria pitzatuta zegoenean pitzadura hauetan lehergaia sartuz.

Kaltzita geruzaren bukaera garbi ikusten da. Hemendik aurrera materiala bigunagoa da, eta pikatxoi eta aitzurrarekin aurrerantz egin zitekeen. Galeriaren hormetan garbi ikusten dira tresna hauek egindako arrastoak. Material honek burdin gehiago du, magmak kanpora irteterakoan tindatutako materiala da, baina burdin ustiapenerako ez da batere aberatsa eta ez du balio ekonomikorik.

Bat-batean bila zebiltzan siderita zaina aurkitu zuten. Garbi ikusten da desberdintasuna. Hemen harkaitzean pitzadura bat zegoen, eta magma bete betean igo zen bertatik, pitzadura betez eta bertan birkristalizatuz.

Siderita oso mineral aberatsa da, burdina ateratzeko erraza, eta balio ekonomiko handikoa. Horregatik zulatu zuten alde guzietara, siderita zaina ahalik eta hobekien ustiatzeko.

Siderita zaina agortu zitzaientean aurrerantz jarraitu zuten, beste geruza baten ondoren siderita gehiago aurkitzeko itxaropenarekin.

Aurrerago bigarren siderita zaina agertu zitzaien. Zain honi jarraituz eskuinetara adar pare bat ireki zituzten, baina aurrerantz ere jarraitu zuten.

Aurrerantz zihoazen eran aurkitzerik espero ez zuten material berdexka arraro bat agertu zen. Meatzariak ez zuten material hau ezagutzen. Galeriaren eskuinaldean agertu zen lehendabizi, baina aurrerantz joan ahala zain hau galeria osora zabaldu zen, eta zain zabala zela ikusi zuten. Material hau sulfuro bat zen, gaur egunean zinka ateratzeko erabiltzen dena, baina orduan ez zeukan balio ekonomikorik. Horregatik aurrerantz egiteari utzi eta ezkererantz joatea erabaki zuten, sulfuro zainaren ertzari jarraituz, burdina gehiagoren bila. Hala ere sulfuro honekin batera balio pixka bat zuen materiala aurkitu zuten, Barita. Hau barioa duen mineral bat da, zuria, eta garai batean



**ETXAIDE
ERAIKUNTZAK, S.A.**

Araba Etorbidea, 5.blokea
Tel: 943 65 31 86

TOLOSA

xehatu eta ogi irinari nahasteko erabiltzen zuten, irina baino pisuagoa eta merkeagoa zenez horrela ogiari pisua erantsi eta garestia saltzeko.

Ezkerreko galeria honi jarraituz siderita gehiago aurkituz joan ziren eta galeria luzatuz joan ziren. Gaur egun, hemen aurrera egiteko harkaitza erorita dago leku bat baino gehiagotan, eta ez dakigu noraino jarraitzen duen, baina mendiaren bestalderaino doazen galeria batzuk badirela diote, eta baliteke hau horietako bat izatea. Eskuinaldean berriz bi galeria ireki zituzten siderita zainari jarraituz. Bat azkar bukatu zitzaion eta aurrera askorik egin gabe utzi zuten. Bestean berriz aurrerantz jarraitu zuten zerbait bilatzeko itxaropenarekin. Galeria honek eman zituen bere fruituak. Oraindik ere ikusi daitezke galena kristal batzuk. Galenatik ateratzen zuten beruna armagintzarako. Azken barrubide hau, alemaniarrek lehegailuak gordetzeko egokitu zuten hormigoiarekin indartuz.

Bestalde, galeria honetan garbi ikusten da harkaitza nola hautsi zen duela denbora asko. Lurraren indarrek harkaitza puskatzean bi zatiak elkarrekiko mugitu egin ziren, eta igurtzian xehatutako harkaitzak eta zirriztutik sartutako hezetasunak



ore bigun bat sortzen du, kolorea ere aldatuz.

Aurrerantz zihoazela kaltzita aurkitu zuten, material gogorra eta baliorik gabekoa, eta ez jarraitzea erabaki zuten. Ezkerrerantz ere saiatu ziren, ea zorterik zuten frogatzeko, baina hemen ere kaltzita agertu zen, eta bertan behera utzi zuten bide hau. Amaieran, mineralaren garraiorako erabiltzen zituzten bagoneten karrilak aurkitzen dira.

Gordailuko paretaren berritzea
Burdinaren Mendian, garai bateko

burdinaren ustiaketaren ondorioz utzitako ondare natural eta paisajistikoa berreskuratzeko ahaleginetan jarraitzen du Zeraingo Udalak. Lur sailak erosi, landaretza berria aldatu, ikerketa arkeologikoak egin, etab. Honekin guztiarekin batera, ondarea berreskuratu nahirik, labeen gain aldeko mineral gordinaren gordailuko pareta berreraikitzen ari da Udala, urteen poderioz, erorita baitzuen horma horren zati bat.

Aitziber Makazaga



HERRI MUSEOA. Herriko bizimodu eta ohiturak
1711.KO KARTZELA.

LARRAONDOKO ZERRATEGIA. Uraren indarra XIX. M.
AIZPEAKO MEATEGIAK. Burdinaren ustiapenaren garapen

MANDIOA DENDA. Herriko produktuak eta artisautza
HARIZTIERDI ATERPETXEA.

www.zerain.com

Zerain Parke
Kulturala

Zeraingo turismo bulegoa
Herriko plaza, z/g.
20214 ZERAIN
Tel. 943 80 15 05
Faxa 943 80 16 06
turismobulegoa@zerain.com

ALDABE ZERBITZU TURISTIKOAK 10 URTE



Aldabe Turismo Zerbitzuak Kooperatiba Elkartearen 10 urte bete ditugu. 10 urte hasiera haietan sortu, landu eta garatu genituen balore eta asmoei tinko eutsiz eta egungo merkatuan aurrera eginez. 10 urteko esperientzia luze adina aberasgarri izan da guretzat, eta jasotako eskarmentuak aurrera bidean indartsu jarraitzeko indarra eman digu. Turismo kulturala, ingurumena eta gastronomia landuz, herri biziak eraiki, bisitariak erakarri eta garapen iraunkorraren baloreak transmititzea dugu helburu gure bidean.

1999ko otsailean gorpuztu genuen Aldabe O. E. sortzeko ideia. Zerain Parke Kulturalaren proiektuak aurrera egin ahala, Zeraingo Udalak eta Zerain Dezagun Fundazioak bultzatuta sortu genuen Aldabe.

Lau urte geroago, pauso bat harago eman eta Aldabe Kooperatiba Elkartea bilakatu zen. Zeraingo proiektuak irmo zirauela ikusirik, erronka berriei ekiteko erabakia hartu genuen. Bidaia-agentzientzako gida-lanak, aholkularitza-

zerbitzuak... Gure esperientzia oinarri hartuta, Gipuzkoako nahiz Euskal Herriko hainbat herrirentzako erreferente bihurtu ginen. Eta halaxe, Aldabek hainbat proiektu interesgarriren ardura hartu zuen: Zegamako Egur Museoaren kudeaketa, Segurako Ardixarra Erdi Aroko interpretazio Zentroaren ardura eta kasko historikoko bisita gidatuen kudeaketa eta Idiazabal Gaztaren Interpretazio Zentroaren ardura Idiazabalen, besteren artean.

Azken finean, herrietako baliabide turistikoaren kudeaketan aditu bilakatu gara.

10 urte betetzearekin batera, pauso berri bat eman eta bulego bat antolatu dugu, gure barruko lanak bertatik egiteko asmoz: kontabilitate, proiektu berrien garapenak, liburuxka,...

Eskerrak eman nahi dizkiegu hamar urte hauetan bide lagun izan ditugun guztiei.

Miren Makazaga

Meatzeak lotu gintuelako

Elizabete Garmendia

... Bide Berdeak lotzen gaitu orain. Mutiloako Barnaolatik Ormaiztegiko geltokiraino doan laupabost kilometroko bide hau, paseatzeko toki paregabea, bi herriotako eta inguruetako biztanle askoren topaleku bihurtu da. Eta Zerainek ere badu hor parte, hortik ateratzen omen zen-eta Aizpeako mea, Troikoarekin batera, Ormaiztegiko geltokira. Iragana azaleratuz, hiru herrien artean egon den lotura berreskuratzeko aukera, trenbideari esker.

Hasteko, merezi du Troiko meazuloa bisitatzeak, Orue etxetik abiatuta. Ez dago bidean, ezta seinalatuta ere, ingurua ondo ezagutzen duenen bat behar da hura bilatzeko. Gure kasuan ormaiztegiar bat izan dugu gidari. Eta kontatzen du nola meatze hauetako zuzendaria azkoitiar bat izan zen, Olaizola, gero Ormaiztegin errotutako familia bateko burua. Bizkarzainekin ibiltzen omen zen gizona, nonbait meatzeetako giroa ez zen samurra.

Barnaolak, harrizko baserri eder horrek, eskaintzen ditu lantegien lehen arrastoak, mea biltzeko izango ziren eraikinak. Makinetxen Bide Berdeari heldu eta laster azaltzen dira trenbideari dagozkionak, drenajeak, bide osoan ikusgai, hasieran ezkerretara, gero eskuinera, mendiak agintzen duenaren arabera.

Kilometro luzexka baten ondoren, Potxuetako zubiarekin egingo dugu topo. Hemen, bidea prestatzerakoan aurkitu zituzten errailak daude ikusgai, batean non eta noizkoa den irakur daitekeela: Bochum, 1881. Alemaniako burniak ondo eutsi dio denboraren joanari.

Bidean aurrera egin ahala, ikusmira zabalduz doa. Han eskuinetara ageri dira Aizkorri eta Aratz; behean Mutiloako herrigunea eta gainean Zeraingo. Aurrez aurre, Txindoki, Ataungo mendiak, Etxegarate, Segurako baserriak... Aurreraxeago, ezkerretara, Gabiri-toki guztietatik agiri, Izazpi, Kizkitza, Itsaso... Aurrerago Usurbe... Goierriko zati handi bat daukagu begibistan.

Liernik atsedentleku tentagarria eskaintzen du, iturri eta guzti. Panelean, ibilbide osoaren planoak. Eta "Mutiloa" izeneko lurrunezko makinaren argazkia, 1960 aldera Mieresen aterata.

Ormaiztegi hurbil dugu, panelak, lau kilometro eginak ditugula adieraztearekin batera, Danborren sartzen gara jakinarazten digunean. Laster azalduko dira han behean



ezkerretara herri honetako lehen baserriak, Mekola eta Udabarro biak, aurreraxeago Sagastiberri.

Luza gabe, umeentzat edozein parke baino jostagarriagoa den gunea, drenajeak direla-eta ezkerretara jeisten diren eskailerekin. Hortik ez urruti bereizten dira Mutiloako eta Zeraingo mearen bideak. Panela berriro ere informazioa eskainiz: Cerain Iron Ore Company Limited-ek Aizpeako labeetan kaltzinatzen zituen burdin karbonatoak; Mutiloako Compañía Minerak berriz Ormaiztegin zeukan labea. 1927an bidali omen zuen enpresa honek azken karga, nora eta Hendaiara, Baionako Boucau Fundiziora.

Bide Berdea hemen bukatzen da, Ormaiztegiko Arizmendi baserrira doan pistarekin gurutzatzean. Behera egin eta oraindik seinalizatu gabe dauden arrasto gehiago erakutsi dizkigu gidariak: Mutiloako enpresaren labea non zegoen, bagoiak deskargatzeko muellea... Ormaiztegiko geltokiko aztarna hauek berreskuratzekotan dira luza gabe.

Oraingoz, trenbidearen ibilbideak eskaintzen duen erosotasunarekin geratuko gara. Eguraldi bustiarekin lasai egiteko modukoa, lokatzaren beldurrik gabe. Eguzkitan freskoa, basoan zehar bait doa ia bide osoa. Laua, trenak hala aginduta, oinez, bizikletaz, zaldiz eta korpildun aulkian egin daiteke, paneletan jartzen duenez. Eta ziur izan, suerte pixka batekin, norekin kontuak esan aurkituko duzuela. Behin mutiloarrak, alkatea buru, herriko mugak ikuskatzen; sarritan, Olano bere txakurtxoarekin, Ergoenetik igota; ormaiztegiarrak ugari, noiznahi; Xanti Larrondokoa, nola ez... Baina gainerantzean apenas ikusi dudak zeraindarrik. Gonbitea egin dago. Ez zarete damutuko.



Mendarte baserrikoak Lixiba jotzen Armaola ondoko errekan. Argazkia XX. mende hasierakoa da.



Araneko Jose Antonio Arakama eta Josefa Inazia Otaegi. 1920 ingurukoa.



Mendarte baserriko familiaren erretratua. 1922. urteko argazkia da.



Zeraingo plazaren argazkia. Sagastibilgo familiak gordetakoa. XX. mende hasierako argazkia da.



Etxeaundiko Mariatxo Etxaluze Gazteluko anai-arrebak asto saskian dituela. 1940. urte inguruko argazkia.



1920ko Zeraingo gaztedia.



Tellerineko familia. 1950. urte ingurukoa.



1936an, Arantzazun ateratako argazkia. Zerain, Segura, Zegar...



Arantzazura erromes joandako zeraindar taldea. 1929ko argazkia



Maria Muñoa eta Cruz Bereziartuaren ezkontza. 1926ko argazkia.



Arantzazura erromes joandako zeraindar taldea. 1948.urte inguruko argazkia

2009. urtearen hasiera
sustatuta, herritar talde
zaharrak biltzen aritu da
gora utzi ditugu zerain
guztiak digitalizatu eta
dira. Urtekari honen or
argazki horietako batzuk
kultur astean egingo
hainbat ikusteko aukera e



ma eta Idiazabalgo artzainak Urbiakoei laguntzera joan ziren.



Joana Aranburu, Felix Berasategi, Joxe Mari Alustiza eta Joxe Migel Iparragirre. 1940 inguruko argazkia.



Jaunartzea. Untsulategiko Antonio Alustiza. 1939ko argazkia.



Aizpe goiko auzoko bilera. 1940 inguruko argazkia.

n, Oa Kultur Elkarteak bat etxez etxe argazki a. Guztira mila argazkitik indarrok. Argazki horiek Udaleko artxiboan gorde rialde hauetan, jasotako azaltzen dira. Hauez gain, den erakusketan beste ere egongo da.



Patxi eta Justina Arzelus anai-arrebak inauterietan. 1940 ingurukoa



Mutikoak ogiarekin. Jabier Arrondo, Jose Mari Imaz eta Jose Telleria. 1953ko argazkia.



M^a Karmen Arakama, Joxe M^a, Karmen eta Izaskun Etxaluze, Maritere Bereziartua, Kontxita Arriaran eta Tere Alustiza. 1957ko argazkia.



Esperantxa Alustiza, alabak Arantxa eta Ixiar, Ines Etxaluze eta alaba Tere. 1956ko argazkia



Monagiloak. Jose Arzelus, Santi Muñoa eta Juan Arzelus. 1961eko argazkia.



Juan Alustiza eta Mariatxo Etxaluzeren ezkontza. 1956ko argazkia.



Antonio eta Pilar Gartzia; eta Jose, Juan eta Jabier Arzelus. 1955eko argazkia.

EAJ/PNV zatiketa*

- | | | |
|--|---|---|
| <p>-1-
Mila bederatzirehun eta larogeita sei urtean eztabaida bat gogorra sortu zaigu jeltxide artean aginte goseak menderatu batzuk bien-bitartean harrokeria ta haundi nahia ez ote dabilta tartean.</p> | <p>-4-
Aurrenetikan bota gaituzte entzuten gendun saminki gau ilunetik egunsentia dator poliki-poliki Cuerdak esana ez geunden pozik geuk joatea erabaki len bakar batzuk zekiten hori gaur herri denak badaki.</p> | <p>-7-
Burua hotza gorde dezagun nahiz izan bihotz beroak odol beroan zail da ematen beti pauso seguroak geronen hurrek ez esateko zentzu gabeko eroak burugogortzat hartu ez gaitzan erruki gabe geroak.</p> |
| <p>-2-
Lengo batean egunkari bat irakurtzen nun harretaz sarri bezala hitzegiten zun Alderdian zatiketaz azterturikan erabaki hau hartu nun gauza horretaz gu diferentziz baino gehiago zatitu ginan kasketaz.</p> | <p>-5-
Egun batean hautsi genitun guk kidetasun kateak zail da neurtzea gauza horrekin sortu ditugun kalteak aztu ez arren barka dezagun ez egon pozoiz beteak bata besteari arren zabaldu besoak eta atek.</p> | <p>-8-
Seme galduen gisara idatzi kontzientzian testoa hobe izaten da lenbailen bildu zentzunaren arrastoa gero inoiz ez eramateko uste gabeko sustoa hego-haizeak eramatean arbol iharren hostoa.</p> |
| <p>-3-
Guk politikan zail da bereizten mandoa eta astoa garaia zala uste ta izan auka hutsa ta lastoa L.T.H. izandu bada zatiketan pretestoa ia mesedez idazten dezun diferentzien testoa.</p> | <p>-6-
Gertatu denarekin oraindik hainbeste bihotz minbera besteak dira beti errudun errugabea norbera gogorkeria uxatzeko baldin alkartzen bagera nire iritziz gauza askotan joan gintezke batera.</p> | |

Joxe Mari Etxaluze

*1986an, EAJn banaketa egon ondoren jarritako bertsoak dira.



OSTATU

JATETXEA

20214 ZERAIN
Tel.: 943 80 17 99

Herri-festa handia, eskolaren mende laurdena ospatzeko

Iazko irailaren 13a egun gogoangarria izan zen Zerainen historiarako. Herri-eskolak 25 urte bete zituela ospatzeko herri osoa bildu ginen egun guztiko jai ederrean.

Goizean, umeentzat jolasak izan ziren. Gero, antzerki ederra egin zuten guraso eta herritarren aurrean. Ondoren, eguerdi partean, pilotaleku atzean Joxemari Telleriak gidaturik herriko gaztetxoek herri-eskolaren 25. urtemugarako egindako murala inauguratu zen. Jarraian, eguneko ekitaldi nagusia iritsi zen. Azken hogeita bost urteetan Zeraingo Herri Eskolaren parte izan direnak omentzeko ekitaldia izan zen. Eskolatik pasatako ikasle ia guztiak, haien gurasoak, irakasleak eta Udaleko ordezkariak omendu genituen. Omenalditxo hori gidatzen eskolatik pasatako ikasle eta ikasle-ohiak aritu ginen. Azken batean, ekitaldi xume horrekin, herri oso bati eskolaren alde egindako lana eta apostua eskertu nahi izan genion festa



horretan. Eta eskertzearekin batera, elkar zoriontzeko unea ere izan zen. Eskolaren mende laurdeneko festa guztion festa bihurtu zen.

Ekitaldia amaitu ostean, poteo txiki bat egin genuen bazkal aurretik.

Ederki bazkaldu, denok elkarrekin eta kanta saio bat egin genuen ondoren. Gero, mahaia utzi eta elizara joan ginen Jose Ramon Soroizek antzeztutako *Sommer Jaunaren istorioak* antzezlana



OIHARTE

Nekazalturismoa eta erretegia

20214 ZERAIN
Maria Luisa Urrestarazu
Tel: 680 171 291



ikustera. Handik irteterako, guztientzat meriendatxo bat prestatu genuen gazteok, eta jaiarekin jarraitu genuen eliz atarian. Ordurako trikitilariak ere iritsi ziren eta kantu eta dantzekin segi genuen kanpoko euriak beldurtu gabe: giro bikaina egon zen benetan.

Batzuek, horrenbestez amaitu zuten eskolaren 25. urteurreneko festa. Beste batzuek, batez ere gazteenok, goizalde arte jarraitu genuen trikiti doinuen laguntzarekin, txikitako istorioak elkarrekin gogoratuz eta eskolako oroitzapenez gozatuz.

25 urteko historia

1983ko irailean, Zerainen historian oso garrantzitsua den gertakari bat izan zen. Urte hartan, herri-eskola sortu eta zortzi haur hasi ziren bertan. Ordutik hona ia 50 ume pasa gara eskola horretatik 25 urtean. Zeraingo belaunaldi gazteenen lehenengo eskola izan da herri-eskola eta sortu zenetik bertatik, bizia eman dio herriari.

Askotan (akaso gehiegitxotan) ez diogu behar besteko garrantzia ematen herrian dugun eskola horri, eskola txiki bezain goxo horri.

Batzuek eliz atariko eskolako istorioak kontatzen dituzte, beste batzuek eskola handitu aurrekoak, beste batzuek haurreskola jarri zenekoak. Baina guztiok eskola bereko garai ezberdinetako istorioak kontatzen ditugu. Eskola hori gure bizitzaren parte izan baita, gure iragana, beste batzuen oraina eta guztion etorkizuna. Hogeita bost urte ez da txantxetako kontua, baina beste mende laurden asko beteko dituela ziur naiz. Urteurreneko leloak zioen moduan, “Urte askotarako eskola, zorionak denoi!”

Ion Muñoa



Urteko gorabeherak



2008-09 ikasturtea amaitu da, oporretan gaude, eskolako atea itxi dira irailera arte.

Ikasturtea hastearekin batera eskolaren 25. urteurrena ospatu genuen herri mailako festa ederrarekin. Ikasturtean zehar hainbat ekintza antolatu dugu, agian aurten beste urteetan baino gutxiago 2008ko Eskola Txikien festa antolatu eta gero, lasaitasun pixka bat behar genuelako.

Basarte Guraso Elkartera 3 bikote berri sartu ziren: Jon eta Martina, Amaia eta Haritz eta Maite eta Haritz. Elkartetik irten berriz bikote bakarra: Pili eta Antton, beraz, handitu egin gara.

Ardura-aldaketa batzuk egin ondoren honela antolatuta egon gara:

Lehendakaria: Arantza

Lehendakari-ordea: Xabier

Idazkaria: Enara

Diruzaina: Amaia J.

Jangelaren ardura: Rebeka

Kulturako ordezkaria: Amaia E.

Eskola Kontseiluan ere aldaketa batzuk egin ondoren gurasoen ordezkari moduan parte hartu dugunok: Enara, Arantza, Xabier eta Rebeka.

Elkarteko bilerak hilean behin egin ditugu hileko azken ostiraletan. Gipuzkoako Eskola Txikien Koordinakundeko bileretan parte hartu dugu eta baita ere Goierriko Eskola Txikien koordinazio-gunean. Herri mailan, herriko Kultur Etxeko batzordean parte hartu dugu eta baita ere erabilera anitzetako azpiegitura zehazteko egin ziren bileretan. XaguArte eta Urtekarirako hainbat artikulu idatzi dugu.

Berrobiko Guraso Elkartearekin bilera egin genuen festaren inguruko informazioa emateko, aurtengo festa beraiek antolatu dute.

Horrez gain, urtero bezala gurasoak eta haurrak elkarrekin irteerak eta bestelako ekintzak egin ditugu:

- * Asteburuko irteera Nafarroako Senda Viva parkera, irailean.

- * Gabon kanta etxez etxe haur eta irakasleekin, abenduan.

- * Bazkaria Mandion, urtarrilean.

- * Eguneko irteera Berria ezagutzera eta Adarra mendiaren magalera, Urnietan, martxoan.

- * Euskal Dantza ikastaroa herriko txikientzat, sanjuanetako dantzak prestatzeko apiriletik ekainera.

- * Pirritx eta Porrotxekin pelikula grabatu, maiatzean.

- * Arratsaldeko irteera Olaberriara Goierriko Eskola Txikien festa ospatzera, maiatzean. Datorren urtean gure ardura izango da festa hau antolatzea.

- * Eguneko irteera Berrobira Gipuzkoako Eskola Txikien Festara.

- * Udaleku irekiak antolatu Kultur Etxearekin batera. Udaleku irekiak ekainaren 29tik uztailaren 24ra bitartean izan dira bi orduz goizetan eta bertan 2-12 urteko haurrek parte hartu dute.

- * Urte bukaerako asteburuko irteera Aralarra Ortzi, Jon eta Martinari bisita egitera, uztailan.

Irailean asmo berriekin berriro jarriko da Guraso Elkartea martxan, bitartean ondo izan!

Arantza Ruiz de Larrinaga

Pirritx eta Porrotxekin eskola txikiei buruzko pelikula: haurrak eta euskara dira Zeraingo altxorra

Herriko haur eta irakasleak Pirritx, Porrotx eta Marimototxekin Zeraingo altxorraren bila ibili dira batetik bestera, koloretako peluka eta jantziekin herria alaitu dute, seguru ikusi dituzula!

Pailazoek ez zuten gure herria ezagutzen, bueno, ezagutu bai, baina ezagutu ezagutu ...

Bazekiten bai herri txikia dela, eta gauza polit asko ditugula, eta egia esan, irrikatan zeuden gure herria barrutik ezagutzeko.

Haurren eskutik eta altxorraren bila jolasaren bidez, gure txoko, ohitura eta bizimodua erakutsi dizkiegu. Herriko kaskoa eta bertan dauden gauzak: jauregia, plaza, parkea, murala, bolatokia, eskola, haurreskola, maixune...

Jolasean, jolasean garai batean gure aurrekoek lan egiten zuten tokiraino iritsi gara: meatzeak. Han aurtan ireki berri den galerian sartu gara ilunpetan, zer beldurra...



Baita ere ikusi dute gaur egun gure gurasoetako batzuk zertan eta nola lan egiten duten: sagardotegian Porrotxek sagardo goxoa dastatu du, artegian Jon eta Martinak gaztak nola egiten dituzten erakutsi diete eta Zabalegiazpin Luisarekin ogia egin dute.

Gauza asko ikusi eta ikasi dituzte Pirritx, Porrotx eta Marimototxek

Zerainen, baina beraiek bakarrik ez, guk ere asko ikasi dugu!

Pelikula bat nola egiten den ikasi dugu, maitasunez gauzak nola egiten diren ere bai! Eta gure haurrak pailazoekin altxorraren bila horrenbeste ordu pasa eta gero, konturatu gara beraiek direla gure herriko altxorra!!!!

ELKARRIZKETA

PORROTX: "Zerain berezia da. Auzolanean gauza ederrak ari zarete eraikitzen, herri txikia handi eginez, pausoz pauso, alaitasunez eta nekerik gabe"

Porrotxekin harremanetan jarri gara maiatzean gure herrian grabatutako pelikulari buruz bere iritzia ezagutzeko eta pozik erantzun ditu gure galderak.

Porrotx, zergatik Eskola Txikiei buruzko pelikula?

Eskola txikien kanta grabatzeko aukera eman zeniguten eta plazerra izan zen guretzat kantatzea eta zuek ezagutzea. Eskola txikiak zoragarriak dira, eta zuen bizipenaren berri ematea onuragarria da denontzat. Geuk ere asko jaso eta ikasi dugu zuengandik eta sudurra gorriago dugu geroztik.

Zergatik Zerainen?

Zerain berezia da. Auzolanean gauza ederrak ari zarete eraikitzen, herri txikia handi eginez, pausoz pauso, alaitasunez eta nekerik gabe. Eredu zarete amesten dugun koloreetako Euskal Herriarentzat eta munduarentzat.

Nolakoa izan da esperientzia?

Esperientzia bikaina izan da. Aktore apartak zarete eta pertsona hobeak. Dantzan ere ez zarete gaizki moldatzen. Bolatokian aritu gara, "txotx" oihukatu dugu, ardiei "plekilloa" moztu, ogia labetik

bero-bero atera, dendaren sekretuak ezagutu, meatzari bihurtu, sendagilea muxukatu, udaletzeko planoak marraztu... eta dena zuen eskutik. Eskerrik asko, mundialak zarete!!

Zer esan nahi diezu Zeraindarrei?

Munduan dagoen altxorrik baliotsuenaren jabe zaretela esango nizueke. Altxor hori ez da lurpean ezkutaturik dagoen horietakoa. Ezpainetan duzue, emateko eta jasotzeko prest, euskara da altxor hori eta muxuak. Partekatzerakoan hartzen du altxor honek bere benetako balioa eta landu dugun bideo eta bideoklip hauen bidez zuen altxor hori partekatzen laguntzea nahiko genuke.

Eta herri txikietan bizi diren guraso eta haurrei?

Aupa zuek!!!! Ilargiraino eta buelta maite zaituztegu!!!

Urruzti erdikoan sutea

Urruzti-erdikoa baserrian sutea izan zen, otsailaren 22an, igande arratsaldean. Etxean inor ez zegoenez sua indarra hartzen joan zen, inguruko baserrietatik teiltuan sugarrak eta kea ikusirik, etxekoei abisua eman zietenarako. Berehala bildu ziren han etxeko, auzotar eta suhiltzaileak ere, baina suak indar handia zuen ordurako, ukuilu zati bat eta makinari batzuk salbatu zituzten arren, etxebizitza ia dena erre zen, barruko altzari eta hainbat tresna denak kiskaliz.

Sute honi aurre egiteko, Zeraingo Su-ermandadeak, bertan dauden baserriarren arteko diru bilketa egin zuen. 2008ko abenduaren 14an egin zen azken bileran, hartutako erabakiaren arabera, Urruzti-erdikoa baserria etxe hutsa bezala zegoen izendatuta, beraz 42.070,85 € zegozkion. 62 kideren artean egin zen ordainketa era honetan banatuta, 21 etxe hutsak, bakoitzak 408,45 € jarritz eta 51 etxe betek, bakoitzak 816,91€.

Horrez gain, beste ekitaldi bat ere antolatu zuen Su-ermandadeak, Zeraingo eta Zegamako Udalen



laguntzarekin. Ekainaren 5ean, ostiral iluntzean Zeraingo elizan, antzerkia, Txalo produkzioak *Ate joka* antzezlan, frontoian afaria Xapre eta Furri trikitilariekin eta ondoren bertso saioa, Xebastian Lizaso, Andoni Egaña, Amets Arzallus eta Sustrai Kolinarekin,

Iñaki Murua gai-jartzaile zela. Ekitaldi hau AMPO enpresak babestu zuen. Antzerkia ikustera jende ugari bildu zen, baita afari eta bertso saiora ere. Egun honetan 5.902,85€ bildu zen Urruzti-erdikoa baserriaren alde.

Elena Mendizabal



ARANBURU HARATEGIA

bertako haragi, txorixo eta
odolkietan adituak

Kale Nagusia, 34. SEGURA

Tel.: 943 80 10 14

Su-ermandadea bizi-bizirik

Zerainen, beste hainbat herritan bezala baserritarren ermandadeak aspalditik ezagutzen dira. Su-ermandadea, ez da hain aspaldikoa.

Zerainen 1930 urte inguruan Basazabal, Kozmendi eta Arakamane baserriak erre ziren. Basazabal, bi bizitzakoa zen eta horietako bat erre zen, bestea salbatu zuten, Kozmendi ere bi bizitzakoa zen eta biak erre ziren, Arakamane bizitza bakarrekoa, dena erre zen. Kasu horietan etxea berritzeko, herritarrek laguntza eman zuten, bakoitzak ahal zuen moduan, batzuk basoko egurra eman zuten, beste batzuk haiek garraiatzen lagundu, etab.

Ondorengo urteetan, baserritarrek, kontu bat ireki eta dirua jartzen joan ziren, ez dakigu noiztik eta zenbatik ere. 1968an Inurrategi baserri eta errota erre zenean, Zeraingo su-ermandadean zegoen dirua beraiei eman zitzaient etxea berritzeko.

Handik gutxira, 1971ko otsailaren 10ean Su-ermandade horren estatutuak aldatu zituzten. Horretarako Idiazabalgo estatutuetan oinarritu ziren. Horrela, ezbeharra gertatzen zenean, jartzen zen bakoitzari zegokion dirua. Hauek dira bertan izena eman zuten 44 etxe edo baserritarren artean hartutako erabakiak.

1-Hutsik dagoen etxe edo baserriak 50.000 pezetako kalte ordaina izango du.

2-Etxejabeak berari dagokion kalte ordaina jasoko du, eta 10 urtez Su-ermandade honetan partaide izatera behartuta geratzen da.

3-Kalte ordaina dirutan izango da, eta teiltua erabat eroriz gero dagokion kalte ordaina osorik jasoko du.

4- Sutearen ondoren, sua piztearen arrazoia ikertuko da, eta nahita piztua dela frogatuko balitz, kide honek ez luke kalte ordaina jasotzeko eskubiderik izango.

5-Su-ermandadeko kide bakoitzak, bere tximini, instalakuntza elektriko e.a. baldintza egokitan ipintzeko konpromisoa hartzen du.

6-Dokumentu hau sinatzen dutenek, 8 eguneko epean, jakinarazi beharko die Juntakoei etxea hutsik gelditzen bada, kasu horretan aipatutako kuotaren balioa galtzen da eta etxe hutsari dagozkion 50.000 pezetako balioa izango du.

7-Bakoitzari dagokion aportazioa kalkulatzera kontuan hartuko da kaltetua bera ere, banaketa proportzionalari dagokiona aportatu beharko du, bere kuotari dagokionaren arabera.

8-Su-ermandadeak suak eragindako kalteak soilik estaltzen ditu.

9-Etxeen altak eta bajak 2 urtez behin egiten diren bileretan egingo dira soilik, kasu berezietan, ezohizko bileran, sinatzaile guztiekin eta gehiengo botoekin egingo da beti.

10-Etxejabearen izena azaldu arren, berak edo bere



izenean beste batek sinatua ez badago ez du eskubiderik izango su ermandade honetan.

11-Etxe baten jabetza aldatuko balitz, 2 urte barruko bilera arte jabe berriak eskubide eta betebeharrak berdina izango lituzke nahiz eta lehengo jabearen izena izan

12-Lehen aipatutako aldaketaren kasuan jabe saltzailea, erosleari agiri hauen kopia bat ematera behartuta dago.

13-Kide guztiei kopia bana emango zaie, 100 pezetako ordaindu beharko dute gastuetarako, juntakoek faktura gorde beharko dute eta junta berritzerakoan hauei emango diete geratzen den diruarekin

14-Junta 2 urtetik berrituko da eta bertan erabakiko da estatutuetan aldaketarik egin behar den.

15-Junta honela osatua geratzen da:

Lehendakaria: Jose Antonio Iparraguirre Mendiaraz

Idazkaria: Aniceto Alustiza Aroztegui

Diruzaina: Jose Mari Apaolaza Olea

Bokalak: Agustin Guerrico Berasategui, Julian Muñoa Aguirre, Jose Aramburu Zubeldia, Carlos Aguirre Arrizabalaga eta Paulino Goya Telleria.

Ondorengo urteetan egin ziren bileretan, etxeen baloreak eguneratzen joan ziren, eta baita, 2. puntuan agertzen dena ere, 10 urtez Su-ermandadeko kide izatea 20 urtera pasatu zen.

2008ko abenduaren 14an egin zen Su-ermandadeko azken bilera, bertan honako aldaketa hauek onartu ziren:

1-Etxeen balorea eguneratzea, horrela etxe beteak 84.141,70€-ko eta hutsari 42.070,85€-ko balorea eman zitzaient.

2-Bilerak bi urtetik behin, azaroaren hirugarren igandean egitea.

3-Bi kideren bajak, eta hamabiren altak onartu.

4-Junta berria izendatu:

Lehendakaria: Juan Aizpeolea Arzelus

Idazkaria: Gregori Telleria Mintegi

Diruzaina: Pako Aizpeolea Alustiza

Bokalak: Juantxo Lekuona Berasategi, Jose Mujika Alkain, Santi Muñoa Telleria (Urrusti-garakoa) eta Udala.

Don Serapio eta Juan Txiki

Joxe Mari Etxaluze

Juan Goikoetxea, Juan txiki Irukate-erdi baserrikoa zen, oso mutiko azkarra eta bihurria omen zen. Ama izan ezik, beste denei hika hitz egiten omen zien, aitari, maisuari, apaizari eta hizketan jartzen zen edonori, zaharra bazen ala gaztea bazen, denei berdin. Gure Don Serapiok esaten omen zion zaharragoei, maisuari eta; zuka hitz egin behar zitzaizela, baina, dena alperrik.

Egun batean, Juan txikiren aita, mezetara etorri zen batean, harrapatu du gure Don Serapiok, eta esan omen zion:

-Hi, Joxe Inazio,- hala zuen izena, Juan txikiren aitak-hire seme horrekin ezin diat burutu, denei hika hitz egiten ziek, eta hori ez zegok ondo, erresponentsio bat eman behar diok hire seme horri.

Aitak, etxera joan zenean, esan omen zion:

- Hi, Juan, Don Serapio oso harrese zegok hirekin, denei, hika hitz egiten diekeelako, eta arrazoi zeukak, horrek gaizki ematen dik, zaharragoei, maisuei eta horrelakoei, errespetuz zuka hitz egin behar zaiek, eta apaizari bai jauna eta ez jauna, esan behar zaiok.

Gure Joan txikik, bai gogoan hartu ere, baina azkenekoa bakarrik, eta hurrena Don Serapio ikusi zuenean, igandean mezatara etorri eta aurrealdean jarri zuti-zuti eta hasi zaio Don Serapiori esaten:

- Bai jauna eta ez jauna, bai jauna eta ez jauna, bai jauna eta ez jauna...

Don Serapiok:

- Baina Joan zer esaten ari haiz, hainbeste bai jauna eta

ez jaunarekin?

Juan Txikiren erantzuna, niri aitak esan zidak hiri, bai jauna eta ez jauna esateko. Gure Don Serapio han gelditu omen zen ahoa beta hortz, zer esan ez zekiela.

Beste batean gure Juan Txikik, aurrekaldean jarri eta esan omen zion, gauza bat esan behar didak, eta egia esan behar didak gainera, apaiza haiz eta ezin didak gezurrik esan, esan behar didak ea nola moldatzen haizen hiru andre mantentzeko. Ez dakigu zer erantzungo zion Don Serapiok, baina seguruenik berriz ere ahoa bete hortz geldituko zela gure Don Serapio.

Bitxikeri hauek Araneko Alejandro Arakamak kontatu zidan Lazkaon, bere etxean, bisita bat egitera joan da, bere 97 urterekin, buru argia dauka oraindik Alejandrok, gorde dezala horrelaxe urte askoan. Egun hartan esan zidan, Juan Txiki eta biak adin berekoak zirela, biak batera ibili zirela Zerainen eskolan, eta akolito ere bai, Don Serapio horrekin, bere aurrean esan ziola Juan txikik, bai jauna eta ez jauna, eta hiru andreenak ere. Don Serapiok aldi hartan hiru neskame omen zeuzkan, eta seguruenik horregatik esango ziola hiru andreena.

Alejandrok esaten zidan, oso azkarra zela, gure Juan txiki hau. Don Serapiori ateraldi horiek egin eta handik urte pare batera edo, Jesusen Lagundian sartu omen zen eta bertan apaiz egin zen eta bizi guzia jesuita bezala eman zuen. Nik Zerainen meza ematen ezagututa nago, eta gero ere Zeraina sarritan etortzen zen, ez zuen inoiz galdu herriminik, beti izan zen oso Zerain maitea nahiz



ARAKAMA
barne diseinua

Hiribarren, 24 Tel. 943 888 717 - 652 775 955 a.arakama@euskalnet.net
20210 - LAZKAO - Gipuzkoa

eta bere gurasoak Zeraindik, bera jesuita sartu, eta berehala alde egin. Aita Atauna joan zen, bere familiarekin, eta Juan Txikiren beste osaba bat, Donostiako Igeldora joan zen bizitzera, eta bertan ezkondu zen.

Ataungo Goikoetxeatarrak, Zeraingo arrazakoak dira. Donostian baziren bi pilotari, Goikoetxea anaiak. Elkarrekin bikote eginez, Espainiako txapeldun izan ziran bi aldiz, afizionatu mailan, oso goi mailako pilotariak izan ziren, bada zer bait maila horretaraino iristea. Hauek Juan Txikiren ilobak ziren.

Juan txiki hau jesuita bezala kargu asko betea omen zen, Jesusen Lagundian, gaztetan azkarra zena, jesuita egin da gero ere ez zen atezain edo portero egongo, nahiz eta atezain egoteak ez duen inolako desonrarik.

Juan Txiki hau hain zen mutiko
azkarra eta trastea
gutxi kostatzen zitzaion honi
bat zirikatzen hastea
honek egia bezala berdin
egin zezakeen txistea
gehien kostatzen dena, egia
zela hori sinistea.

Apaiz kontuetan nabilen ezkerro, niri 1946 edo 1947 inguruan gertatutako bitxikeri bat, kontatu nahi nuke oraingo honetan. Andra Mari eguna zen, eta ni akolito nenbilen garai hartan. Aste Santuan eta herriko jaietan, kanpoko sermolariak ekartzen ziren. Urte hartan Demetrio Garmendia, Arantzazuko prailea, etorri zen Zeraina, sermolari. Gu akolito sartu aurretik, pilotan jolasten genbiltzan eliz atarian, Don Franzisko pasa zen sakristiara, mezatarako gauzak prestatzera eta geroxeago, apaiz etxetik, etorri zen Garmendia praile hori, gure parean gelditu zen, eta niri deitu zidan:

- Hi mutiko etorri hadi hona

Ni joan eta "ave maria purisima esango nion, lehenengo hitza, apaizari saludo hori egin behar zitzaiola ondo erakutsiak geneuzkan Don Franziskok, eta berak, ez dakit zer erantzun zidan, seguru asko "sin pekado konzebida" gure parrokoak behintzat hori erantzuten zuen, eta esan zidan:

- Zer daukak kopetan?

Nik eskua pasa nuen, eta ez nuen ezer arrarorik sumatu.

- Ezer ez - erantzun nion

Berak berriz galdetu zidan:

- Zer daukak kopetan?

Nik berriz eskua pasa, eta

- Ezer ez - erantzun nion.

Berak esan zidan:

- Izerdia, mutil, izerdia!!! Hi ez haute berehala obispo egingo.

Nik erantzun:

-Zu ere oraindik egin gabe zaude behintzat

"Ji, ji, ji" barre maltzur bat eginez, han joan zen gure prailea sakristiara, meza emateko prestatzera. Gu ere berehala joan egin behar, akolito jantzi, kandelak piztu, eskea egiteko saskiak prestatu, intzentxoak piztu, eta abar egitera.



Juan Goikoetxea Jesuita egin zenekoa

Hura zen beldurra eta belaunetako ikara, sakristiara joateko, niri ez zidan beldurrik ematen Demetrio Garmendiak, niri Don Franziskok partitzen zituen napar-intxaurrek ematen zidaten beldurra. Nik pentsatzen nuen Demetriok, Don Franziskori kontatu egingo ziola, nire lotsagabekeriazko erantzuna, baina nonbait ez zen hala gertatu, gu sakristiara joan ginenean urte betetze kantuan ari ziren, gure parrokoa eta prailea. Egun hartan bai zen Don Franziskoren urte betetzea, guk ere urte askotarako esan genion, gure Don Franziskori eta horretan pasatu zen nire kezka eta beldurra. Oso umore oneko zegoen gure erretorea eta hala hobe. Ez dakit Demetriok nire lotsagabekeria ez zion kontatu edo hain umore oneko zegoelako, barkatu zidan, kontua da egun hartan, gure Don Franziskok hain sarri partitzen zituen napar-intxaurrek ez zituela partitu, eta ni ez nintzen haserre, onik irten nintzenean estualdi hartatik.

Nik gertakari hau Segura irratan kontatu nuen Zeraini buruzko programa batean. Programa horretan Irati Goikoetxea zegoen zuzendari eta berari napar-intxaurren esaldi hori asko harritu zitzaion, agian inoiz entzun gabe egongo zen, nahiz eta gure artean nahiko maiz erabili esaldi hori. Hitzak hizpidea, dio esaera zaharrak, eta Iratik, esan zidan:

- Ni napar-intxaurrekin gelditu naiz. Zer dira napar-intxaurrek?

Zer ziren jakin izan balu, ez zidan esango, ni napar-intxaurrekin gelditzen naiz!!!!, eta nik erantzun nion:

- Nik aina kobratu izan bazenitu, jakingo zenuen zer ziren napar-intxaurrek

Emandako argibide honekin oraindik norbait balego, napar-intxaurrek zeri esaten zaion, ez dakienik, Goierrri alde honetan, beste argibide garbiago bat jartzen saiaturiko naiz, kaskarreko bat, ona, norbait emandakoan ateratzen den, koskorriari, esaten diogu guk, napar-intxaurrek.

Gaurkoan, hementxe utziko ditut gure Juan txiki eta Demetrio Garmendiaren kontuak, Don Franzisko eta bere napar-intxaurrek, beste egun batean aztertuko ditut, askotarako ematen bai du Don Franziskok, Zerainen egin zuen ibilbide oparoa bezain gogorrak.

Beste bat arte.

Zeraingo ardi-izenak, garai baten oihartzun

Mikel Zalbide

Artzain-kulturak indar handia izan du Euskal herrian. Ez da hori gauza berria. Goierrin inon baino biziago egon da artzain-kultura hori, orain dela gutxi arte. Hala egon izan da eta, zorionez, ez da erabat galdu. Beste gauza asko galdu egin diren artean, bizirik eutsi dio artzantzak bere buruari. Garia eta lihoa egiteari aspaldi samar utzi zitzaion herriko soroetan; sagardogintza ere atzendu samarrrik egon da zenbait urtez; idi-pareak joan ziren aspaldi, eta haiek lotzeko uztarriak dekoraziotarako gorde dira. Gurdirik ere ez da baserri inguruko soroetan ageri: gurdi-bideak berak, traktorez edo lanroberrez ibiltzeko egokitu ez badira, sasiz eta luiziz itxi egin dira urte gutxiren buruan. Etxean ogia egitea ere kontu bitxia bihurturik daukagu baserri gehienetan: ur bila errekaldeko iturrira joatea bezain gauza bitxi eta bakana. Ganadua etxean izatea ere istoria da dagoeneko. Orobat txerria etxean hil eta txerri-muniak ingurukoei eta familiartekoei banatzea. Erabat aldatu da baserriko bizimolde tradizional hura, gure aiton-amonen garaian oraindik indarrean zegoena. Aldatu ez ezik galdu eta desagertu ere egin da gure begien bistan.

Artzantza ere aldatu egin da, jakina, baina ez horrenbeste. Bizirik dago oraindik, hainbatean, eta ez dirudi galtzekoa denik berehalako batean. Badu gutxienezko bideragarritasun ekonomikorik. Haragiak eta artileak ez dio artzantzari bizibiderik ematen, baina gaztagintzak bai. Idiazabalgo gaztamarkak, kalitate handiko gaztagintzak alegia, bertako artzantza

indarberritu egin duela esan liteke. Ez noski gazte-jendeak, samaldan, artantzara joan nahi izateko moduan: bai, ordea, artzain-bizia bideragarri izateko heinean.

Bizirik iraungo bazuen, aldaketa handiak egin behar izan ditu artzantzak: artaldea handitu du (berrogei bat ardirekin ezin da gaur inolako ogibiderik atera), ikulu-erakuntza zabalak prestatu dira, esnea jezteko eta tenperatura freskoan gordetzeko higieenezko instalazioak egin, gaztangintzaren hartzidura- edo fermentazio-prozesua lege-arau berrietara birmoldatu da, salmenta-sistema eguneratu eta abar. Asko kostatako eboluzioa, egokitze-lana eta berrikuntza izan da hori. Artzain-jendearen dedikazio isil nekagaitza eta sakrifizio pertsonala dago bilakaera horren oinarri-oinarrian, lehenik eta behin: artzainena eta, nola ez, beren familiena. Ez dute merezimendu makala, bizi garen gizarte honetan bizi izanik, artaldea gau eta egun, asteen zazpi egun eta urtean hamabi hilabete atenditzen duten artzainek eta beren ingurukoek. Hartarako gogoa, ahalmena eta korajea ageri duen artzain-jendeak badu guztion eskerrona jasotzeko motiboa.

Ardiak berak ere aldatu egin dira kastaz, zenbait lekutan: Israel aldeko kasta hori sartu da leku batzuetan. Zerainen ez dugu, antza denez, horrelako berrikuntzarik: teknologiazko aurrerapenak bai, baina ardi-kasta modifikatze hori ez. Ardiak, beraz, orain dela ehun urtekoen kasta berekoak direla esan liteke. Ardiak bai. Baina ardi-izenak?

Horretara gatoz gaurkoan. Ardiek, izan ere, badute izena. Ez ardi

guztiek, eta ez beti. Baina bai zenbaitek eta bai, une batetik aurrera, askok. Lehen umea egindakoan (garai horren jira-bueltan) ematen omen zaio ardiari izena, lehenengo aldiz: ordutik aurrera esaten omen dio artzainak *musu-beltz*, *buztan-luze*, *ipurtzikin*, *gaitzetsi*, *titi-bakar*, *txakur-maite*, *lahar-jale*, *tripa-zabal*, *esne-lehor*, *hanka-okor*, *adar-motz*, *kopetaundi*, *ile-kixkur*, *tximoso*, *ermoxo*, *pintto* edo dena-delakoa. Zergatik ematen zaie ardiei izena? Nork ematen die, eta zertarako? Zer izen-modu aukeratu ohi dira ardiak izendatzeko? Dirudien baino lan delikatuagoa da, galdera horiei erantzun egokia eman ahal izatea. Ez naiz ni kontu horietan aditua, eta hobe nuke beraz isilik egon. Badut hala ere, zorionez, besteren lanaz baliatzeko aukerarik ardi-izenen kontu honetan. Besteren lanaz baliatuko naiz beraz gaurkoan, urtekarirako artikuluxka hau prestatzeko orduan. Martxel Aizpurua biologoak, aspaldiko lagun zaharrak, liburutxo interesgarria argitara eman zuen orain dela 24 urte: *Ardi-izenak* zuen liburuak titulua. Berak ere, sarrerakoan argi asko aitortzen duenez, aurreko zenbait adituren lanak hartu zituen oinarri, izen-azterketa hura egiteko. Bilketa-lan horietariko gehienak 1966etik 1984ra bitartean egin ziren. Endrike Zurutuza albaiteroa aurre samarrean ibili zen izen-biltze horretan. Manuel Laborde Werlinden jaunak ere egin zuen halakorik, Zerainen eta beste zenbait herritan. Zeraingo izen-biltzeak, oker ez banago, 1973ko irailean egin ziren Barbari Arretxen, Serorategin, Otatzan, Etxeaundin eta Untsaltegin: Barbari Arretxeko



Bernardo Telleria izan zen batean izen-emaile, Serorategiko Margarita eta Krispulo saiatu ziren bestetik, Otatzako Joan Mendizabal izan zen hirugarren informazio-iturria. Etxeaundiko norbait hurrena (ez dio nor: Ostaturun bildu omen ziren) eta, azkenik, Untsaltegiko Joxe Aranburu. Bost horiek ageri dira orduko izen-emaileen zerrendan.

Zer izen ematen zieten ardiei, orain dela 35 urte inguru, zeraindar haiek? Era askotakoak. Luze joko liguke izen guztiak hona ekartzea: orriak eta orriak beharko genituzke horretarako. Izen modu bat da ordea, niretzat, garai hartako izenetan deigarria. Hizkuntzalariek, aspaldiko sanskrito-hizkuntzaren altxorretik aterata, **bahuvrihi** deitu izan dituzten hitz-elkartuak. Lehenengo hitza izena da, substantiboa. Bigarrena, berriz, adjektiboa. Bigarren lekuan doan adjektibo hori da ordea nagusi, ez (gehienetan izan ohi den moduan) lehenengo lekuan doan substantiboa. Etxe urdina etxea da; begi-urdina, aldiz, ez da begia, begiak urdin-kolorekoak dituen norbait baizik. Bigarren era horretakoak dira garai bateko artzainek beren ardiei jarri ohi zizkieten izen-elkartuak. Funtsean, lau ezaugarri ageri dira orduko zeraindarren ardi-izenetako

adjektiboetan nagusi: kolorea, neurria, forma eta kopurua. Ikus ditzagun laurak:

a) Kolorea: beltz (begi-beltz, bizkar-beltz, ezpain-beltz, ipurbeltz, lepo-beltz, musu-beltz, mutur-beltz), **gorri** (musu-gorri, mutur-gorri), **pintto** (hanka-pintto, mutur-pintto) eta **zuri** (begi-txuri, belarri-zuri, buru-zuri, muturtxuri)

b) Neurria: haundi (adar-haundi, buru-haundi, belarri-haundi, errape-haundi, hanka-haundi, mototx-haundi, tripa-haundi), **txiki** (buru-txiki), **luze** (hanka-luze, ile-luze, mutur-luze) eta **motz** (belarri-motz, hanka-motz, ile-motz, mutur-motz, (k)okotz-motz). Aldiz, **labur** (buztan-labur, adibidez) ez da Zerainen ageri.

c) Forma: baldar (hanka-baldar, tripa-baldar), **bihurri** (adar-bihurri, hanka-bihurri), **eder** (musu-eder), **kizkur** (ile-kizkur), **lodi** (adar-lodi), **makal** (belar(ri)-makal), **oker** (adar-oker, hanka-oker), **zabal** (adar-zabal) eta **zuti** (adartxuti)

d) Izaera: gogor (errape-gogor), **lehor** (esne-lehor)

e) Kopurua: bakar (adar-bakar,

titi-bakar)

Bada hortik kanpora, Zerainen sarri ageri den beste ardi-izen bat ere: **jale** hitza amaieran duena. Horrelakoak dira, adibidez, ezkur-jale, lorajale, sagar-jale, alpapa-jale, lahar-jale, gaztiña-jale, amezti-punta-jale eta abar. Beste zenbait izen-elkarte ere ageri da orain dela 35 urte inguruko zeraindar haien ezpainetan, benetan deigarriak: **gaitzetsi** forma, esate baterako, aski ezaguna izana da, itxuraz, beraien hitz-altxorrean. Indarrean ote daude ardi-izenok, Zerainen eta Zeraindik kanpora, egungo artaldeetan? Galdera interesgarria da hori: hizkuntzaren hitz-eraketazko barne-erabideen bizitasun-maila, beren emankortasuna eta ulergarritasuna, neurtzeko bide bat genuke hor. Urrutira eramango gintzuke horrek guztiak, ordea, eta hobe izango dugu aurtengoz kontuak horrela utzi. Gaurkoan esandakoen jarraipena beste baterako utzi beharko dugu. Gauza bat dago argi, nolanahi ere: artzainek altxor aberatsa ekarri dute berekin, aldaketa handirik gabe antza, belaunez belaur. Beren **bahuvrihi** horiek, esate baterako, aspaldi-aspaldiko euskararen oihartzun izan litezke.

Leonzio Zaragozano euskal musikaria eta Zerain

Jesetxo Zufiaurre

Leonzio Zaragozano Ortuzar, Donostian jaio zen eta Koruko Santa Maria elizan 1840ko irailaren 12an bataiatu zuten, beraz garai hartako usadiotan oinarritu ezker aurreko egunean jaiotakoa izango zen ziur aski.

Gurasoak gipuzkoarrak zituen, aita Fabian Zaragozano Zuloaga, Eibarkoa eta ama Josefa Martina Ortuzar Loiaste, Lazkaokoa.

Behin mutiko egin zenean apaiza izan nahi zuela eta, ikasketak egitera joan zen. Filosofiako hiru kurtsoak "Meritus, Benemeritus eta Meritus" notekin lortu zituen; Teologiako lau kurtsoak "Meritus" notekin; eta Zuzenbide Kanonikoko beste hiru kurtsoak "Benemeritus eta Meritisimus" notekin. Beraz ez zen ikasle makala.

Apaizgorako behar zituen gai hauez gain, musikan eta organoa jotzen ere trebatu zen.

Rafael Mendialdua jaunak aldizkari batean idatzitako "Los Maestros de Capilla de la catedral de Santa Maria" izeneko bere artikuluan, Zaragozanok 23 urte zituela, apaiztu baino bat lehenago, Gasteizko katedraleko Kapera Maisua aukeratzeko lehiaketa plazaratu zen eta han aurkeztu zen gure Leonzio gaztea.

Aukeraketa hartako epaimahaikoek, aurkeztu zirenen artean ez zuten nonbait bere gogozkorik inor bilatu eta Maisua izendatu gabe gelditu ziren urte hartan.

Urte hartan bertan, 1863ko abenduaren 26an, Diakono ordenatu zuten.

1864. urtean, aurrekoan bezala, Gasteizko katedraleko lehiaketa bera plazaratu zenean, aurkeztu egin zen.

Beharbada lan hain ospetsuarentzat gazteegia ikusten zutelako edo, beste bati eman zioten Kapera Maisuaren ardura, baina Zaragozano jaunak musikarako eta abesteko zituen dohainak ez zituzten galdu nahi izan eta, Instrumentazioa oso ondo zekiela eta oso ondo abesten zuela esanaz, Salmista eta Kaperako tenore izateko hartu zuten.

Lan horretan urriaren 24an hasi zen eta, bi hilabete geroago, 1864ko abenduaren 17an Apaiz ordenatu zuten.

Eta idazleak dionez, handik urte betera Gasteiztik alde egin zuen.

Gasteizko Elizbarrutiko Artxibotik bidali zidaten agiriaren arabera hiri hartatik Bilbora joan zen eta bertan urte bete tenore bezala egon zen.

1866ko udazkenetik 1867. urteko hasiera arte Donostiako Santa Maria parrokiako bikarioaren aginduetara egon zen; hurrengo sei hilabeteak Arrasaten zerbitzatu zuen; eta berriro ere Santa Mariara itzuli zen, bertan 1873ko udara arte apaiz lanetan arituz.

1873ko uztailaren 18an Frantziara joan zen eta hamalau hilabetez bertan egon zen.

Frantziatik itzuli ondoren, 1874ko azaroaren 3an apaiz lagunkide bezala Segurako parrokiara etorri zen eta 46 urterekin 1887ko otsailaren 25ean hil zen arte bertan aritu zen.

Konposaketa lanetan ere trebea zen. Kantu asko konposatu zituen, zortzikoak izanik ezagutzen ditugun gehienak. Bilboko Euskalerra elkarteak 1882ko uztailaren 31an Euskal Lore-Jokoak antolatu zituen eta Zaragozano jaunak, bere "Izan gaitezen beti Euskaldunak" ahots eta pianorentzat konposatutako zortzikoarekin Ohorezko Aipamena jaso zuen.

Ezagutzen ditugu beste bost zortziko behintzat; margolaria eta txistularia den Joxemari Telleria jaunak eman zizkidan kopiak. 1882. urtean hasi eta 1886.era arte urte banatan egindakoak dira; bi eta hiru ahotsetan abestekoak, eta 1883 eta 1885ekoak pianoaren laguntzarekin gainera.

Bost zortziko hauek helburu batekin konposatutakoak izan ziren. Zeraingo bikarioari bere urtebetetzear zorianduz abesteko hain zuzen ere. Eginkizun honetara etortzen ziren urtero-urtero, azaroaren bederatzian, Zeraina Leonzio Zaragozano eta Segurako notarioa zen Ildefonso Azkarate Askasua jaunak.

Zortzikoa abestu eta bikarioa zoriandu ondoren, urtero lagunarteko bazkari edo afariren bat egingo zutelakoan nago. Zaragozano eta Alustiza apaizak, edadean hamar hilabeteren aldea besterik ez zuten, apaizgotarako azken kurtsoak elkarrekin ikasitakoak ziren eta 1864. urteko abenduaren 17an egin zituzten biak apaiz Gasteizen eta hortik etorriko zitzaien adiskidetasuna.

Zeraingo bikarioa Jose Francisco Teodoro Alustiza Telleria zen. Mutiloako Buztindegia etxean 1839ko azaroaren 9an jaiotakoa.

Bere aita Jose Joakin Alustiza Alustiza, 1807. urteko abuztuaren 16an Zerainean jaiotako mandazaina zen, eta ama Maria Ageda Telleria Arrieta, 1806ko otsailaren 5ean Mutiloan jaiotakoa. 1833. urteko maiatzaren 1ean ezkondu ziren biak.

Lehenbiziko ikasketak egin ondoren apaizetarako prestatzera Iruñara joan zen. Hango institutuan eta Seminarioan egin zituen Filosofiako hiru urte eta Teologia Dogmatikako beste lau. Gasteizko Seminario de Agirrera etorri eta Eskritura Santuen beste bi kurtso egin zituen. Apaiz egin eta aste betera, 1864ko abenduaren 29an, Zeraingo parrokiako apaiz lagunkidea izendatu zuten eta hamabi urtetan aritu zen zerbitzu horretan.



1876ko maiatzaren 29an, Segurako auzoa zen Urtsuarango elizako ardura hartu zuen urte pare baterako.

Eta berriro ere Zeraina itzuliaz, bertako bikariotza kargua 1878ko apirilaren 9an hartu zuen eta 1907. urtea arte iraun zuen, irailaren 29an, San Migel egunez, hil zen bitarte. Bertako erregistroan dauden hildakoen liburuan, 68 urterekin, goizeko zortziak eta erditan, ezkerreko parotidako min biziarekin Bikarioetxean hil zela dio.

Testamentua ere egin zuen, Segurako Luis Zubiaga notarioaren aurrean, 1904. urteko martxoaren 21ean.

Bere aita Jose Joakin zeraindarra, urteak joan ahala, mandaiza izatetik Buztindegiko dendaren eta beste gauza askoren jabe izatera iritsi zen; baita Zeraingo Zierdi-patza parajearen zegoen "Rechipin" izeneko minarena ere.

1879ko azaroaren bederatzian, Zeraingo lau baserritarrei mina horren ustiaketa nola uzten zien esaten duen agiria Oñatiko artxiboan bilatu nuen. Minerala Beasaingo fabrikara eraman eta hark ematen zieten txartelean azaltzen ziren ehun kiloko kintal bakoitzarengatik lau marabedi berari ordaintzekotan uzten zien.

Bikarioaren arreba zen Joxepa Inazia, Zeraina ezkondu zen bertako maisua izan zen Jose Maria Alustiza Aranarekin eta, 1878. urtean, hiru hilabeteren barruan biak hil zirenean, Joakin, Joan eta Anakleta semealabak utzi zituzten.

Aiton amonak era Zeraingoak zituen, Joan Bautista Alustiza Lazkano 1769ko abuztuaren 17an jaioa aitona, eta Maria Catalina Alustiza Apaolaza amona. Biak lehengusuak zirenez, Pio VII. Aita Santuari ezkontzeko baimena eskatu eta 1803ko azaroaren 17an Zerainen ezkondu ziren.

Bere ama Maria Ageda, 1848. urteko martxoaren 30ean, 42 urte zituela, Mutiloako Buztindegiko etxean hil zen. Aita bost ume txikiekin gelditu zen. Beraz, beriro ezkondu zen. Bigarren emaztea Zeraingoa eta bere lehengusua zuen; 1803ko abuztuaren 29an jaiotako Maria Magdalena Alustiza Arana eta berarekin ez zuen familiarik izan. Baina hau ere bera baino lehen hil zen, 1870eko uztailaren 27an, aita bigarren aldiz alrrgun geldituz.

Aita Jose Joakin, Mutiloako Buztindegiko etxean, 1882ko abenduaren 27an, 75 urterekin hil zen.

Leoncio Zaragozano musikariak beste abesti ospetsua ere konposatu zuen. Beraz honek eman dio osperik handiena. Euskaraz eta erdaraz bere letra duen "Motete al divino Redentor" izenburukoa da. Ostiral Santu arratsañdean egiten diren elizkizunetan Jesusen heriotza ospatzeko abestekoa.

Garai baten Euskalerriko herri askotan abesten zen eta hizkuntzaren erabileraren arabera batzutan "Hil da Jesus" bezala eta bestetan "Ya murio" bezala ezagutzen da. Gaur egun Seguran eta Zegaman behintzat abesten dute. Badakit Hondarribian ere abesten dela eta, oraindik orain, bertako koruak atera duen disko baten azaltzen da. Garai baten Beasaingo Loinatz Abesbatzak, baritono bakarlaria On Kaietano Etxeberria zelarik abesten zutenean, ez zen elizan ez tul hotsik entzuten. Hain da zirrargarria....

BIBLIOGRAFIA: ERESBIL (Euskal Musikaren Artxiboa) Joxemari Telleria jauna, Oñatiko Protokoloen Artxiboa, Gasteizko Elizbarrutiko Artxiboa, Donostiako Elizbarrutiko Artxiboa, Mutiloko Erregistro Zibila, Segurako Erregistro Zibila, Zeraingo Erregistro Zibila.

Arrantza IV

Joxe Mari Etxaluze

Gure gaztetako zaletasuna arrantzarako ezaguna da nire lantxo hauetan maiz kontatu dudalako eta lagun artean ere harro kontatzen genituen arrantzan egindako balentriak. Gu garai hartan Segurako pilotarien jarraitzaile sutsuak ginen. Beraiek partidua non jokatzen zuten, gu han izaten ginen beraiek animatzen. Beren garaipenarekin harro sentitzen ginen, eta beraien porrotekin beraiek bezalaxe sufritzen genuen. Garai hartan Seguran pilotari asko zen, eta oso onak, Gipuzkoan eta Euskal Herrian goi-mailan ibiltzen ziren gehienak. Gu gazte ginela San Joanetako partidak guretzat sakratuak ziren, urteren batean zirimiru edo euriagatik jokatzen ez baziren Seguran ez zen festa taxuzkorik ezer egiten.

Nik Seguran dudan pilotarien lehenengo oroitzapena, Joan Mari Galarza, Joxe Etxeberria I, Domingo Luzuriaga eta horiena da. Nik Seguran ikusitako lehenengo partidaz gogoratzen naizena da Joxe Etxeberria "exkerra" eta Seberiano Etxeberria, Egia eta Soroa I aurka, ez naiz gogoratzen nork irabazi zuen baino nola jokatzen ikusi nituen bai. Inziarte ere jokatzen ikusita nago Seberiano Etxeberriarekin, aurkariak ez naiz gogoratzen nortzuk zituzten. Geroxeago Joxe Mari Auzmendi etorri zen indarrean oso pilotari fina zen. Famatuak izaten ziren Auzmendi eta Etxeberria II-ak, Arbizu anaiei aurka jokatzen zituzten partidua. Urte batean gogoratzen naiz 22 eta 3 nola irabazi zuten herriko bikoteak, Segurako frontoia sutan jarri zen egun hartan. Arbizu eta horiek beste anai bat bazuten erremontean jokatzen zuena, garai hartan eta oso goi mailako profesionala gainera.

Garai hartan Segurara askotan etortzen zen beste bikote bat Ilundain-Dufur zen. Dufur hau, altua zen eta oso meharra, oso begirada zorrotzekoa, konparazio txar bat eginda, Aste Santuko prozesioan, Jesus Zigorrean agertzen diren Joxe Luis eta Kontxuelo bezala ezagutzen diren etsai haien antzekoa, frontoian aurkaria begiradarekin ikaratzeko moduko horietakoa, nahiz eta Segurako aurkariak ez ziren kikiltzen, irabaziko bazuten pilotan latz jokatu behar izaten zuten.

Seguran garai hartan pilotaria, basoan perretxikoak bezala irteten zen. Horien atzetik etorri ziren Garaialde anaiak, Simon, munduko txapeldun izan zena, eta Sebastian; Etxeberriatarak Gotzon, Etxeberria IV; Iñasito, Etxeberria VI; Franzisko Jabier, Etxeberria VIII; Patxi, Etxeberria III; Sabino Aldanondo eta Antonio Aldanondo, "Akilli", hau profesionaletan ibili zen urte mordoska batez. Sebastian Garaialde eta Antonio Aldanondo "Akilli" nire kinta berekoak dira. Eduardo Telleria, Antonio Imaz, Juan Mari Arrieta "Mendaro", Iñaki Aranburu, Prontxio Aristimuño: azken lau hauek ere profesionaletan ibiliak, Martin Alustiza, Seguran pilotaren zeruan sortu den izarrik distiratsuena, Xabier Imaz, hau ere profesionaletan aritua eta Iñaki Artola.

Eskuz ezik erremontean, ere, izan dira txapeldun

bikainak Seguran, Iñaki Imaz eta Joseba Auzmendi, besteak, beste. Aurrera begira, gaur ez da etorkizun haundirik ikusten, gauzak asko aldatu dira jolasteko eta dibertitzeko eran.

Gu, Segurako pilotarien jarraitzaile sutsuak izan ginen, garai hartan, eta haiek animatzera joaten ginen, Legazpira, Tolosara, Bergarara, Donostiako Groseko frontoira, Altsasura, Olaztira etab. Beraien garaipenekin poztu egiten ginen eta beraien porrotarekin mindu eta buru makur etortzen ginen etxera, baina igande arratsalde bapote pasatzen genuen, giro jator eta ederrean.

Beraiek, bere pilotarekin ibiltzen ziren, buru belarri sartuta, eta gu berriz, geure ehiza eta arrantzarekin egoten ginen. Harro kontatzen genituen lan horietan egindako balentriak. Horietako kontakizun batean, Gotzon Etxeberria, Etxeberria IV. nari gurekin Aizkorrontora arrantzara joateko gogoia edo ikusmina sortu zitzaion, eta berak partidurik ez zeukan jai goiz batean, hara joateko plana egin genuen, eta baita joan ere. Mantxolako etxe ondoraino motorrean joan ginen, Martin eta Bernardo Etxaluze, Joxe Arakama "Arane", Tomas Alustiza "Sagastibil", Gotzon Etxeberria eta ni Joxe Mari Etxaluze, seiok osatu genuen taldea. Aristizabaldik, Salubitatik Larrosaina eta handik Brinkola zaharrera jatsi ginen, eta handik Aierdi errekarara. Uda parteko goiz eguzkitsu eder bat zen, eta han hasi ginen arrantzatzen.

Gu ohituak ginen, baina Gotzonentzat ura mundu berria zen, inoiz ikusi gabe zegoelako arrantza mota hura. Gogoan daukat errekan sartu eta berehala, neuk esan nuen, harri txabal bat ikusita: harri horren azpian aingira egongo duk !!! Neuk altxatu nuen harria eta halaxe gertatu. Gure Bernardok, sardexka sartu eta harrapatu zuen, Gotzonek, aingira ikusi zuenean atera zuen garrasia, gogoan hartzekoa izan zen. Hala goiz guztia arrantzan pasa eta uzteko ordua iritsi zenean trasteak hartu eta jaitsi ginen Brinkola zaharrera, eta etxera abiatu.

Egindako arrantza kontatu behar genuela eta, lehenengo putzuaren gainean kontatu omen genituen. Bitxikeri hau Gotzoni zor diot, ni ez nintzen gauza harekin gogoratzen. 62 amorrai eta 6 aingira omen ziren, lehenengo putzuan kontatu genituela esan dut, ez dakienarentzat, esango dut.

Tunel handia zulatu zutenean, harria eta lurra dena, zulo bat egin eta handik ateratzen zuten mendi barrua usteko, horri deitzen zaio putzua, aizkor azpiko bailara honetan. Tunel haundiak 10 putzu ditu dena, Brinkola zaharra baino goraxeago dago lehenengoa, eta Zegamako apeaderoa baino geroxeago 10garrena, 6 eta 7garrenak, Ormakion, hauek dira ezagunenak, bitxikeria da, baina kontatu egin dut.

Gure arrantza hori hartuta, etxera etorri ginen lehengo bide beretik. Segurako Imaz jatetxean, afari bat eginez, jatea erabaki genuen, eta Gotzon Etxeberriak eraman



Gotzon Etxeberria eta Eduardo Telleria

zituen bertan prestatzeko. Imaz jatetxean, harrituta hainbat amorrai ikusita, Imazeneko Joanitak esan omen zion Gotzoni; Aureo medikuari egingo ziola ilusio haundia, pare batek, eta Gotzonek, emateko. Hala Aureo medikuak, jan omen zituen bi amorrai haietakoak, sekula ez zuela jan mokadu finagorik, esaten omen zuen ondoren, aizkor ondoko amorraia oso fina da.

Oso esker oneko egoten omen zen, geroztik, kontatzen du, Gotzonek. Ez da ezer askorik behar izaten, inor pozik uzteko, aldi berean, min emateko ere, gauza gutxi behar da askotan. Horrelakoxeak gara pertsonak. Imazenen afari hori egin eta hala bukatu zen egun hartako arrantza festa. Gotzon Etxeberriarentzat espereintzia berria izan zen hura, eta gogoan dauzka egun hartako komeriak, nik baino hobeto, memoria ere ona dauka eta gorde dezala horrelaxe urte askoan.

Beste egun batez, aingirak harrapatzeko, gauean kordelak bota behar genituela eta ezkalu harrapatzen ibili ginen Etxeaundi aldean, eta baita harrapatu ere, mordoska ederra, kordelak preparatu genituen gauean botatzeko, eta Etxeaundiko labeko errezuman utzi genituen jasota, gauean errekan botatzeko.

Ez dakienarentzat, esango dut, kordela zer den, eta nola prestatzen den, gutxi gora behera, metro eta erdi pasa luzeko soka bati, beste lau bat soka edo lista erasten zaio, hogeit bat zentimetro luzekoak, puntan antzuelo bat ondo lotuta jarrita, eta antzuelo horretan ezkalua jartzen da sartuta, amu gisa, gero hori errekan jartzen da, putzu handi samar batean, soka lodiena adar bati, erreka bazterrean lotuta, horrelaxe botatzen da kordela.

Aipatu dudanez egun horretan, kukuak oker jo zigun ordean, gauean, kordelak botatzeko joan, eta Etxeaundiko labetik kordelak hartzen hasi ginenean, konturatu ginen, ezkalu denak, katuak janda zeuzkala, egun hartan, gure katuak egin zuen, guk adinako afaria, katuak beti katu saguaren, etxekoandarearen eta edonoren deskuidoak aprobetxatzen beti zain. Handik ondorengo egun batean, Joxe Luis Zikiri eta gure Bernardo, arratsaldean, kordelak preparatu, aurrekoan baino hobeto zaindu, eta Araneko Artegitik hasi eta Aizpea arte kordelak errekan boteaz joan eta gero, Aizperrotan, garai hartan, taberna zen, han ordu batzuk pasa kontu kontari edo musean, eta behera

etortzerakoan, kordelak bildu, 13 aingira atera omen zituzten, handik egun batzuetara, Zeraingo Ostaturan afaltzen jan genituen, Rafaelak ederki prestatuta. Egund hartan Jose Francisco Zabaloazuazola "Bixardo" zegoen hilda, eta haren errosariora joan ginen afaldu ondoren. Bitxikeri hau ere, Joxe Luis Zikiriren memorian zegoen gordeta, horrelaxe gorde ditzala urte askoan.

Guk Zeraingo erreketan, amorraia jartzea izan genuen beti amets, eta egi bihurtuta ikusi genuen egun batez. Inor konturatu gabe Joxe Luisek eta Bernardok aizkor ondolik, ondo kostata, ekarritako 25 amorrai haietatik ehunka amorrai jaio ziren, eta harritzeko moduko aberastasuna jarri zen Zeraingo erreketan. Baina behartsuaren etxean, pozak gutxi irautea esan ohi da, eta hala izan zen, gure poza laster erori zen amildegira.

Joxe Luis Arriaran, Zikirik, amorrai bat jan zuela, esan izan du hainbeste kostata aizkor ondolik, berak ekarritako amorrai haietatik. Gure koinatu Joxe Mari Berasategi "Atxatxek", emanda jan omen zuen, Serorategiko Antselma enterratu zen egunean, jan zuela gainera, esan izan du, ez du memori makala behar txikikeri horiek denak, 50 bat urte geroago, gogoan edukitzeko. Joxe Mari "Atxatxe" kañaz ibiltzen zen arrantzan, eta kañaz ez zuen asko harrapatuko, baina hark bat harrapatu bazuen ere, hura behintzat eman, berak ekarri eta jarriak ziren, izan ere oso borondate onekoa zen gure Joxe Mari hau. Joxe Luis Zikiri, oso esker oneko egoten da Atxatxek berarekin eduki zuen detaile hargatik, beste inork, eskerrik ere, ez geniola eman inoiz, eta horrelako batzuk esan izan dizkigu, kontu haiek berritzen ditugun bakoitzean, baino ondo konpontzen gara, lagun arteko kontuak dira horiek, elkarri adar pixka bat ere jo beharra izaten da-eta, baina ez gara inoiz haserretzen, eta horrela hobe.

Segurako Joanito Gerrikok, Bilbotik kare biziz kargatuta zetorrela, kamioiarekin erreka erori zen, eta kare biziak, erreka dena erre eta kiskalita utzi zuen. Ehunka eta ehunka amorrai, aingira, karramarro edo kangreju, ezkalu, baita barbo etab hila zituen Inurategiko Aiertzatik hasi eta Santa Engrazia bitarte, dena kiskali zuen kareak, esnea bezain zuri joan zen erreka dena, egund pare batez, penagarria izan zen, han egindako hondamendia. Zerainen Liztormendi soziedadea egina zegoen ordurako baina inork ez genuen ezer egin, erreka amorraiz berriro hornitzeko. Ez Diputazioaren bidez, ez Federazioaren bidez, ez Udaletxearen bidez, ez eta kamioiaren seguruaren bidez, oso buru gabe jokatu genuen orduan zeraindarrok, inori bururatu ez, eta hartan pasa zen hura. 3 erreka koskor salbatu ziren, Mutiloan, Ergoienekoa; eta Zerainen Larraondokoa eta Aizpeakoa, Inurategiko Aiertzatik gorakoak. Baina urte asko pasa ziren berriz erreka amorraiz, ezkaluz eta kangrejuz jartzen, eta lehen bezala ez zen sekula jantzi. Gaur amorrai bakar batzuk ikusten dira, baina gure sasoia joan zen, garai hartan bezala ibiltzeko eta akabo. Gaurko gazteak ez dut pentsatzen, gu orduan ibiltzen ginen bezala ibiltzeko prest egongo direnik, amorrai batzuengatik. Gauzak asko aldatu dira, eta onerako, zorionez.

Jarraituko dut, nire oroitzapenak zuentzat kontatzen beste batean ere.

Sepulturak Zeraingo elizan

Garai batean, elizako sepulturetan ehortzen zituzten gorpuak, ez dakigu zehazki noiz arte, baina seguraski 1800. urte ingururarte. Sepulturetako ehortzketak amaitutakoan, hilerrietan hasi ziren. Zerainen hasieran elizatzean zegoen hilerria eta ondoren gaur dagoen lekura eraman zuten; 1923. urtean, San Blas ermitaren ondora.

Sepulturetaz esan genezakeena da, elizaren zoruan dauden lauki zuzeneko irudiak direla, eta bertan gorpuak ehortzen direla. Zerainen, elizaren atzealdean daude kokaturik, koruaren azpi aldean. Elizako benetako sepulturak, haritzezko ohol zoruaren azpian daude. 1,90 m. luzeran eta 0,60 m. zabaleran neurtzen du bakoitzak. Sei ilara daude eta ilara bakoitza egurrezko listoi argi batek banatzen du. Ilararen barruan, bakoitzak bere zenbakia du, batetik hogeitabirarte ilararik handienera.

Sepulturaren erabilpena, baserri bakoitzaren menpe egoten zen. Ganbaratxon jaioa den Joanita Alustizak esan digunez, baserri bakoitzak bere sepultura zuen, bakoitzak diru kopuru bat ordaintzen zion elizari sepultura edukitzeagatik. Baserria saldu nahi bazuten, sepultura ere baserriarekin batera salduko zen. Baserria usten bazen, tokia aldatzeagatik edo horrelako zerbaitegatik, bertako biztanle zirenak mantentzen zuten bere erabilera edo elizak beste baserri bati emango zion diru kopuru baten truke. Baserria alokairuan bazegoen, maiztarrak edukiko zuen sepultura erabiltzeko eskubidea.

Nahiz eta sepulturak aspaldi galdu zuten bere betekizuna, bere inguruan zeuden zenbat ohitura mantendu ziren gerotxoarte, 1980ko hamarkadaren hasieran oraindik argizaiola batzuk bazeuden, hala ere 1989an sepulturetan zeuden aulkiak bere jabeak baserrira eraman eta bankuak jarri ziren.

Joanitik esan digunez, elizkizun guztietan baserriko etxeoandrea edo bere familiako emakumeren bat egoten zen baserriko sepulturaren aulkian, etxeoandrea deitzen zitzaiona, beti emakumezkoa zen eta bera izaten zen etxeo errepresentazioa. Gizonezkoak, umeak eta etxeo beste guztiak bankuetan esertzen omen ziren, orain bezala.

Baserrian norbait hiltzen zenean, hiletetako, sepultura gainean zapi beltz bat jartzen zen, oihal beltza: 0,75 m. luze eta 0,50 m. zabalean zituen oihala. Oihalean, kurutze zuri bat eta hildakoaren izen abizenen lehenengo letrak kurutzearen besoen azpian. Bi argizaiola ere jartzen omen ziren. Hori horrela mantentzen zen hildako urtemugaraino, orduan etxeoandreak jasotzen zuenarik.

Meza guztietan egon ohi zen sepultura batzuen gainean oihal beltz bat eta argizaiola bere gainean, bi edo hiru argizaiola ere egoten omen ziren gainean batzuetan. Joanitari galdetu diogunean bat, bi edo hiru argizaiola egoten ziren, haxe erantzun digu: etxeok igoal bat edo bi jartzen zituzten eta beste norbaitek besteren bat, hantxe egon ohi ziren hirurak.

Meza hasi aurretik, argizaiolak elizako serorak pizten





zituela argizaiolak esan digu Joanitak eta gainera, serora bere izeba zela ere gogorarazi digu, bere izeba ez zegoenean berriz, berak edo bere ahizpa Florentziak egiten omen zituzten lan horiek. Serora zer den ere esplikatu digu: elizako lanak egiten zituena; kanpaiak jo, kandelak piztu, eliza zaindu...

Joanitik ezagututa omen dauzka urtean hamazazpi sepultura hildakoez gogoratzeko ohal beltzez jantziak. Berak ez zuen ezagutu sepulturetan gorpurik ehortzen, normala denez, esan zigun ehortze kontuaz, berak entzuten omen zituen garai batean bertan ehortzen zituztela baina ezagutu ez.

Bukatzeke, eskerrak eman nahi genioke Joanita Alustizari eta baita ere ezin ahaztu Karmele Goñitaz, horrenbeste maite duen Zerainen kontu zaharrak gordetzeaz arduratu dena eta bereziki hiletan inguruko ohitura, berak jasotakoa da sepulturen zerrenda.

Laida Alustiza eta Andoni Alustiza

1865.urtean sepulturen banaketa
Zeraingo baserrien artean

Elizako aldare aldea

Aizperrakota		Eliza		Zabalegi Garakoa	Narda Etxeberri
Tellerine erdikoa eta garakoa		Gaztelu			
Eliza			Etxeberri	Zabalegi Azpikoa	
Eliza	Sagastibil		Etxeberri	Antizabal	Arakamañea
Eliza	Auzpe Orea		Oñarte	Arrendo	Agerre
Eliza	Goñecorea		Txoritegi	Barrenetxea	Jauregi
Ayerza	Ilurategi		Besazabal	Lasa	Ikorta Gibelsasi handia
Etxetxo	Etxeberria		Besazabal	Inukate Garakoa	Olatxigi
Kaiparsoro	Etxeberria		Legorburu	Errementari Berri	Eliza
Urusti Azpikoa	Etxeberria		Arane	Antoneña	Concejo
Urusti Azpikoa	Arrola		Txoitzakine	Bidarte	Berheko Gokoetxe
Larreondo	Manxola buki		Serrotegi	Telleria	Telleretxe
Benefiziazuna	Eskorta Lizardi		Etxeandia	Telleria	Urustiengoa Gibelsasi txiki
Zakaregi	Olea		Untsulategi	Zirardi	Txoitzategi Gibelsasi txiki
Ilurategi	Olatza		Untsulategi	Barrenetxea	Bengoetxea
Olatza	Gogan Etxea		Bikario Etxea	Gorostizu Mendi	Errementari
Mendarte		Bikario Etxea		Errementari	Manxola Handia
Errementari		Txoitzategi		Ganbaratxo	Barbiri herrixkoa
		Aldasoro		Legorburu	Gokoetxea Alzpekoa
				Mendia	Garnu

Karmele Goñik 1991.urtean *Etnografia de Zerain: Ritos de pasaje. La muerte liburuan jaso.*

Gozatu bizitzaz...

Haizeak aurpegian jotzen dit, malkoak alboetara eramaten dizkit. Hotzikarak dauzkat eta euria ari du. Azkeneko aldiz atzera begiratzeko beldurra daukat. Azkenean, beldurra uxatu eta poliki-poliki bira eman diot nire buruari. Gaua da, dena ilun dago eta pizturik dauden farolen argia besterik ez dut ikusten, behe-laino maltzur eta sakon hartan. Bat- batean pertsona ezagun bat aterata da korrika behe-lainotik. Begietan malkoak ditu eta bere ile horia saltoka dabil leku batetik bestera, haizearen indarrarengatik. Nire laguna da, nire bihotza. Inoiz esan ez diodan arren, berak badaki berarengan sentitzen dudana, eta uste dut berak ere niregan zerbait sentitzen duela.

Builaka hasi da. Ez diot entzuten eta ez diot entzun nahi. Haren ahots lirain eta lasaigarria entzuten badut beldurra sartuko zait eta ez dut salto egingo. Beraz, berriro burua biratu eta itsasoan jarri ditut begiak. Olatu handiak daude. Lehen eguzki izpiak agertzen hasita daude. Itsasoa beltza dago eta dena jango duela dirudi. Orduan iruditu zait momentu egokiena. Begiak itxi, eskuak ireki eta....nire bihotza entzun dut lehenengo aldiz, odolak nola zeharkatzen duen nire gorputz guztia, bizitzeko gogoa eta beldurra sentitu ditut. Bihotza bere lekuan ezin egonda dago eta burura nire gaztetako pentsamenduak etorri zaizkit.

Hamar urte nituen Araun-a bizitzera joan nintzenean, uste nuen beste herri guztiak bezalakoa izango zela, zeren eta nire aitaren lanagatik beti ibili behar ginen

herritik- herrira. Baina hau oso espeziala izan zen. Bertan baitzegoen Alai. Gainera ez ginen gehiago etxez aldatu eta bertan gelditu ginen betirako. Nire aita pertsona ona zen, hala ere ez zuen behar bezain beste denbora pasatzen nirekin. Ia egun guztia lanean egoten zen eta ama.... ba....orain dela 3 urte joan egin zen. Aitak esan zidan bezainbeste toki hobe batera.

Oso ondo gogoratzen dut eskolako lehen eguna. Nire motxila urdina aldean neraman, eta burua makur-makur autobusean sartu nintzen eskolako bidea hartuz. Iristean, inor existituko ez balitz bezala, izkina batera joan nintzen, geroago gorroto izango nuen txirrinaren zain. Orduan ikusi nuen. Begi urdinak zituen eta bere ilea horixka zen. Inoiz ikusi ez nuen edertasuna nire alderantz zetorren eta ez nekien zer egin:

-Kaixo! Alai naiz. Nola izena duzu?-galdetu zidan ahots eztiak.

-Albert- erantzun nion munduan existitzen den tomate gorriena baino gorriago.

Handik aurrera jakin nuen bera ere berria zela herrian eta oso lagunak egin ginen. Egunero geratzen ginen etxeko-lanak egiteko, hitz egiteko, jolasteko edota denbora pasatzeko.

Hamasei urte nituen eta plazan nengoen. Udaberri asko pasa ziren herrira iritsi nintzenetik eta gauza asko aldatu ziren. Nirekin Alai zegoen, nire lagun mina, eta ezkutuan nire bihotza.

-Hi!Joango al gaituk zinera?-galdetu zidan.

Lirain

Lurrindegi, Kosmetika eta Erregaluak

San Inazio kalea, 14 - Tel. 943 88 93 90 - 20200 BEASAIN
Garagarza plaza, 1 - Tel. 943 80 53 27 - 20240 ORDIZIA
San Frantzisko pasealekua, 8 Tel. 943 65 02 39 - 20400 - TOLOSA



-Ok! Gaur arratsaldeko zortzietan ondo?-erantzun nion.

-Ederki! Beno, bazkaltzera joan beharra daukat, aio!-esan zidan eskuarekin keinu bat eginez.

-Ongi da! Gerorarte!-agurtu nion.

Hain zen alaia, xamurra, ederra... hil egingo nintzatekeela zerbait txarra gertatuko balitzai...Horrek nire sentimenduetatik atera dit eta berriro notatu ditut hotza, euriak nola jotzen didan bere indar guztiarekin eta haizeak xuxurla lodi bat zela dirudi. Azken hauek nire biziko sentimendu txarrak ekarri dizkit burura.

Hemeretzi urte nituen. Oroitzapen haiek...Alai eta ni oso ondo ibiltzen ginen batera eta kurtsoa oso ondo zihoan. Soziologia egiten ari nintzen Itxert-eko Unibertsitatean. Baina dena ez zen hain ondo joan. Egun baten, Alaiek esan zidan mutil batek ateratzeko eskatu ziola eta baietz erantzun ziola. Orduan bihotza milioi bat zatitan egin zitzaidan, purea baino ere txikiago. Arnasa ezin nuen hartu eta nire betiko alaitasunaren irribarrea aurpegitik ezabatu zitzaidan. Hala ere, bera, mutilarekin ateratzen joan zen. Ia ezin nuen suportatu nuen sufrimendua. 3 hilabete geroago oraindik batera zebiltzan eta niri munduan egon daitekeen berri txarrena ematera etorri zitzaizkidan eskolara. Segituan jakin nuen zer gertatzen zen, beltzez jantzitako bi gizon, nire klasean sartu eta niregatik galdetu zutenean. Nire aita hil zen.

Ezin nuen ezertan pentsatu, inoiz ez nuen horrelako

minik sentitu. Gauzak hobetzeko Alaiek mutilarekin moztu zuen baina momentu on batean loteria izango zena, momentu horretan huskeria bat bihurtu zen. Buruari bira asko eman ondoren Hemen nago. Berriro nire pentsamenduetatik irten naiz Alaien ahotsa entzutean:

-Ez jaurti! Mesedez! Maite zaitut! Zu maite zaitut eta ez beste inor!-negar hutsean dago.

Orduan konturatu naiz. Hitz lasaigarri, xarmant, ezti... hura entzutean. Segituan egin behar dut salto bestela ez dut inoiz egingo, baina beranduegi da. Nire bihotzean dena desberdina da. Sentitzen dut hemendik aurrera dena desberdina izango dela, sentitzen dut beldurra, eta ez bada dena ondo ateratzen? Ba, pentsatuko dut beste batean.

Orduan poliki-poliki atzeraka joan naiz, pauso txikiak emanez. Atzeraka ematen dudana pauso bakoitzeko bizia notatzen dut nire bihotzean. Orduan erabaki dut, ez naiz botako. Alaia niregana iristean besarkada bat eman dit eta muxu xamur bat. Inoiz ez dut horrelakorik sentitu. Horrela gaudela hau pentsatu dut: Zertarako hil? Agian biziari eskarmentua emateko, lasaitzeko, edo tokatzen zaidalako. Badakidana da hil egingo garela, noiz ez dizut esango baina bai hilko zarela. Ordura arte, gozatu bizitzaz...

Mikel Etxeberria eta Ander Foroni

Bertsoak: Zeraingo festak

NEURRIA: Zortziko handia

DOINUA: O Baserritxo

-1-

Zeraingo festak badatoztela
abuztuakin batera
lenengo txekor ta geroago
sagardoa dastatzera
juerga asko egiten degu
ta goizaldean etxera
baina beti ni joaten naiz
oso ondo pasatzera.

-2-

Astora igo ta bat-batean
hasi ein da lasterketa
asto txar onen kulpablea da
aurrez eindako zozketa
elizatzer sartzearekin
kristoren errebuelta
astotik eroi ta segituan
irikita nun kopeta.

-3-

Karrera bukau ta segiko deu
musika pixka batekin
dantzan hasita aze giroa
olako ambientekin
plaza beteta kotxerik gabe
ume gazte ta zarrekin
disfrutatzen det txikitatikan
zeraindarren festakin!

Mikel Oria

Txisteak

Gizon bat medikuarengana joan zen eta esan zion:

- Mediku jauna, arazo bat daukat. Nire puzkarrek ez dute usainik.

- Hori ez da posible. Bota ezazu bat oraintxe bertan!

- PPPPPRRRRRRRRR!

- Hori larria da. Ebakuntza behar duzu.

- Ipurdian?

- Ez, gizona, sudurrean!

Lelo bat izozki denda batean sartu da eta esan dio izozkigileari:

- Emango didazu izozki bat mesedez?

- Zer zaporezkoa?

- Berdin zait, erori egingo zait

Indio bat tabernan sartu da, eta esan dio tabernariari:

- Zuk whisky gogorra eman, bestela indioak ez ordaindu.

Gizonak whisky gogorra eman dio eta indioak esan dio:

- Whisky hau ez da gogorra. Indioak ez ordaindu.

Hurrengo egunean berdin gertatu zen eta, hirugarren egunean, indioa azaldu denean berriro esan dio:

- Whisky gogorra eman, bestela indioak ez ordaindu.

Tabernariak whiskyarekin batera bolbora hautsa bota dio.


Hurrengo egunean indioa sartu da esanez:

- Whisky arinagoa eman, izan ere, atzo indioak puzkerra bota eta zaldia hil.

Jokin Intxausti

Ezberdintasunak

Marrakzi batetik bestera 7 desberdintasun daude. Ea aurkitzen dituzun...



Izar Foroni



izal

IMAZ ETA CONTRERAS

PINTURA ETA PAPERGINTZA

Tel: 943 18 70 49 - 943 18 70 45


20213 IDIAZABAL

Hizki-zopa


Bilatu 12 animaliren izenak:

K	A	U	O	G	L	O	A	I	A	T	Q	Y	F
G	A	M	I	Q	T	P	O	O	T	X	A	L	A
H	S	T	S	W	Y	I	N	P	S	A	W	U	G
G	T	Y	U	E	H	G	Y	L	D	K	E	I	H
I	D	O	Y	A	N	E	F	O	F	U	A	S	J
J	F	P	T	R	L	L	W	R	G	R	R	U	K
A	N	I	A	R	R	A	E	O	H	R	M	G	L
S	D	U	P	V	B	N	K	A	J	A	T	E	N
X	A	S	I	C	A	Y	A	E	K	C	A	A	Z
V	F	R	O	I	S	D	A	R	L	V	R	O	X
N	J	M	R	Z	X	F	I	T	N	B	M	P	C
Z	K	O	L	Q	E	A	H	A	T	E	A	A	V
B	X	H	G	G	T	G	E	Y	Z	N	R	S	B
T	N	M	L	N	J	H	B	U	X	M	T	D	N

Zenbat alde ditu piramide honek?



Zenbat alde ditu kubo honek?



Irati Saez de Egilaz

Handi-handia egiteko sekretuak

Leirek lagun bat dauka.

Ane du izena.

Ane txikia denez badu zer ikasia. Anek oraindik ez daki zein diren handia egiteko eta osasunez bizitzeko zortzi sekretu. Leirek erabaki zuen Ane handia egin behar zela eta ez zekiela zein ziren handia egiteko zortzi sekretu:

- 1.-Goizetan, ongi gosalduta behar da.
- 2.- Hamaiketako txiki bat egin behar da indarrak ez galtzeko.
- 3.-Hainbat eratako janariak jan behar dira.
- 4.-Kirola egitea ere garrantzitsua da.
- 5.- Bosgarren sekretua egunero bostna fruta edo barazki jatea da.
- 6.-Afaria ere oso garrantzitsua da.
- 7.-Oheratu aurretik basokada bat esne hartu behar da.
- Baina oraindik sekretu handiena falta zen esateko eta Leirek kontatu egin zion.
- 8.-Ohera joan aurretik aita eta amen musua.

Jolasak

Lotu argazki bakoitzari bere izena:

Pintatu agindutako koloreekin:

KATUA

TXAKURRA

TXIMUA



Hostoak: berdez
Zurtoinak: marroiz
Petalok: morez
Aurpegia: horiz

Oihane Lazkanoiturburu

Joxepinaren bihurrikeriak

Joxepina izeneko sorginak bazuen goma bat eta harekin jolastea oso gustuko zuen. Ikastolan zegoen egun batean goma leihotik behera erori zitzaion eta zuhaitz baten adarrean geratu zitzaion. Ikastola horretan arau bat zegoen: EZIN ZEN MAJIA EGIN. Majia eginez gero, usain berezi bat zabaltzen zelako gela osoan. Joxepinak, goma hartu zuen zuhaitzetik majia eginaz eta bapatean usaina zabaltzen zelako gela osoan.

- Nork egin du majia? - galdetu zuen andereñoak.

- Nik ez dut egin - esan zuen Joxepinak. Bitartean, Joxepinak goma hartu zuen, baina andereñoa konturatu egin zen eta esan zion:

- Konturatu naiz. Zu izan zara, ezta?

Joxepina gorri-gorri jarri zen eta...

- Baaa...bai, andereño.

- Hilabete osoan jolas ordurik gabe geldituko zara eta gurasoekin hitz egingo dut.

Arratsalde horretan gurasoak etorri ziren eta gertatutakoa entzun ondoren hirurak etxera joan ziren. Haserre zeuden beraien alabarekin eta hilabete osoa telebista ikusi gabe zigortu zuten.

Orain, jolas ordurik gabe eta telebista ikusi gabe dago Joxepina sorgintxo gaixoa.

Asmakizunak

Lapurtzea,
beti izan da nire lana,
gazta, nire janaria
eta katua, beti izan da
nire lagun txarrenetako bat.
Zer naiz?

Altua naiz, beltza
eta kea botatzen dut
nire ahotik.
Zer naiz?

Txikia naiz, oso txikia,
eta bukaera jartzen diot
idatzitakoari.
Zer naiz?

Dama txuri bat naiz.
Belardi berde batetik
noa oinez eta oinez
dena txuriz gelditu arte.
Zer naiz?

Oso poliki ibiltzen naiz,
buelata eta buelata
nahiz eta inoiz gelditu ez,
beti nagoen lekuan nago.
Zer naiz?

Aulkia daukat esertzeko,
animalia bat naiz,
inoiz ezin naiz eseri.
Zer naiz?

Hizki-zopa

Bilatu 8 fruituen izenak.

K	O	K	O	A	F	A	A	U	E	S	K
H	T	L	M	O	N	O	T	K	J	L	C
N	O	A	A	I	W	A	S	D	T	J	M
M	R	L	N	A	R	I	P	Ñ	S	I	E
A	A	B	D	E	R	B	N	K	A	K	L
R	E	E	A	A	V	R	O	C	N	O	O
R	O	R	R	Z	U	F	A	R	D	A	C
U	H	T	I	W	A	R	T	G	I	A	O
B	G	X	N	A	O	H	M	C	A	U	T
I	D	I	A	F	B	O	U	B	J	S	O
A	S	K	Q	R	T	M	A	M	K	O	I
U	T	O	G	E	R	E	Z	I	A	A	A

Haizea Foroni

Asmakizunak

Piruleta disdiratsuak kalean:
orain marrubizko
orain laranjazko
orain mentazko.
Zer da?

Jazten naiz zilarrez
osorik, erdizka edo batere ez.
Argi egiten dut
nahiz neure argirik izan ez.
Nor naiz?

Gauak gauago egiten ditu
Eta egunak ia gau.
Zein da bera? Zein darion
negarra? Eta batzuetan
egiten duen su-ziztada
Zein, haren orroa?

Erantzunak: Sematoroa, ilargia, tximista

Txistea

Baziren behin 2 tonto eta egun batean tonto 1 beste tontoaren etxera joan zen eta atea jo zuen eta barrutik beste tontoak esan zuen: "Eztago inor etxean!"
"Nola ba inor eztagoela etxean, barrutik erantzun du eta!"

Josu Lazkanoiturburu



TXIRBIL Koop.E.

EGUR PELLETA, BEROKUNTZARAKO BIOMASA SISTEMA AUTOMATIKOAK

ZERAIN
Tel. 943 800 208
txirbil@txirbil.com

EGURREZKO LEIHOAK ETA ISKILARAK

Hizki-zopa

Letra zopa honetan Zeraingo ondarea diren bederatzi lekuren izenak aurkituko dituzu:

A	E	R	F	Q	W	X	C	V	A	K	Y	H	F
Q	Y	K	A	R	T	Z	E	L	O	W	D	X	K
Z	S	D	F	T	Y	U	J	D	R	D	E	S	Z
A	J	Y	A	M	X	F	V	H	A	N	R	Z	R
A	A	S	X	Z	U	H	U	L	P	F	R	C	L
A	U	A	S	F	Z	S	D	G	A	F	A	D	I
S	R	W	G	W	A	A	E	W	D	Y	T	S	Z
W	E	D	G	N	J	L	C	O	L	V	E	N	A
Q	G	Z	B	V	G	J	M	D	A	C	G	X	B
E	I	L	S	F	G	V	N	J	F	H	I	A	H
W	A	X	Z	D	G	H	J	L	J	I	A	L	M
S	W	S	L	A	B	E	A	K	R	T	Y	H	G
A	S	F	G	H	J	K	L	N	A	B	C	D	E
F	G	H	I	J	K	A	M	R	O	P	A	I	D

SAN BLAS, JAUREGIA, ALDAPAROA, DIAPORAMA, LABEAK, MUSEOA, KARTZELA, ZERRATEGIA eta ELIZA.

Aroa Saez de Egilaz



MUJIK JATETXEA

LIERNIA - Tfnoa: 943 80 16 99 - 20214 MUTILOA



Zerain (Gipuzkoa) - Tfnoa. 943 800 161
www.lumagorri.es



LumaGorri

Dastatu desberdintasuna



JOXE TELLERIA, S.L.
Aseguruak . Korreduria

Plaza Erauskin, 2
20200 BEASAIN (Gipuzkoa)
Tlf.: 943 882 643 / 943 887 155
Fax: 943 887 155